**BAPATEAN 2025**

Grabaketak: Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Bertsozale Elkarteetako sail desberdinei zein borondatezko grabatzaileei esker jasotakoak.

Bertsoen hautaketa eta transkribaketa: Bertsozale Elkartea



Argazkien hautaketa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Doinutegi Batzordea.

Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzako *Ondarea* dirulaguntza jaso du.

Argitalpen honek Gipuzkoako Foru Aldundiko *Oreka* dirulaguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa

Argitaratzailea:

BERTSOZALE ELKARTEA

Nagusia, 70

20.150 Villabona

ISBN: 978-84-89283-73-2

Lege Gordailua: D 00143-2026

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea ........ 4

Argibideak eta irizpideak ........ 6

Bat-bateko bertso hautatuak ........ 9

Bat-bateko sariketak ........ 95

Bertso saioen mugimendua ........ 117

Tauletako kontzeptuen azalpena ........ 121

Aldizkako ekitaldiak: txapelketa eta sariketak ........ 125

Saioen aurkibidea ........ 129

Bertsolarien aurkibidea ........ 135

Izen eta izengoitien deskribapena ........ 139

# Hitzaurrea



## BAPATEAN

Deus ez da bat-batean gertatzen. Bat-batekoa luzaz zohitutako itzaleko lan baten emaitza da. Baldintza anitzen bidegurutzean gauzatzen da beti.

Herri zapaldu baten oldarra bat-batean lehertzen da. Behin eta berriz lehertuko da, zapalkuntzak irauten dueno. Munduaren injustizia bat-batean aurpegiratzen digu, eta bat-batean, bat-bateko hori bortitzegia egiten zaigu. Lasai bizitzeko ikusi nahi ez genukeenaren adierazpen tragikoa. Hala nola, Gernikako zauriak elkartasunez liliarazten dituen Palestinarren borroka. Gure negarrekin ureztatzen ditugun liliak ere baitira…

Bat-batean xiberotar gazte batzuek maskaradan aritzeko grazia ukan ahal izan dezaten, edota xiberotar haurrek antzerki atelierretan euskaraz inprobisa ahal izan dezaten, haien aurrekoek lur-beltzik prestatu ez balute, zer? Gure euskal gizartean, bai eta kulturan eta artean orokorrean, bat-batekorik ez da, ez da egia.

Aurten, Bernart Etxeparek bat-bateko bisita egin digu. Aspalditik etxen ikusi ez ginuen osaba bitxia kafearen hartzera etorri zaigu. Kafe bat, besterik ez. Sorpresaz harrapatu gaitu eta afaltzera atxiki nahi genuke, lo egitera gonbidatu. Gizon xaharrari etxeko goxotasuna berriz dastarazi nahi genioke, eia gure artean bizitzera itzuli nahi litekeen, baina ez, bere arrazoiak ditu. Parisera itzuli beharko du. Paper zaharreko osaba, zu zira, egiazki ? Ala zure mamua ? Zure erlikia ? Ez ote zira anitzez biziago gure ezpainetan badabiltzan zure kobletan? Ezpainetan zaituguno, heben zira biziko, beste inon baino haboro. Esku artean duzuen bertso sorta hau bezala: liburuan ezartzeak ez dezala ahalbidetu immaterialaren objektifikatzea, txoria kaiolan sartzea, baina barnago erro dezala bertsozaletasuna eta efimeroaz behin eta berriz gozatzeko parada eman diezagula.

Bernart. Bernart eta Beñat. Beñat Larrori Tanto. Aurten Xiberoko lau koblakari Xilaban aritzeko prestatu dira. Bat-batekora prestatu dira, oren luzez. Lau xiberotar, ez baita guti! Denak gizon haatik. Beti gauza ona da, esparru zenbait oraindik hartzekoak ditugula ohartzea.

Bat-batekoa prestatzen da, bai. Baina bat-batekoak bere lege eta misterioak ere baditu, eta bertsolarien entzuleak grazia berezi horren bila gabiltza. Bertsoak ustekabean harrapa gaitzan nahi dugu. Laba lurraren erditik bat-batean jalgitzen den bezala, biziaren erdigunetik jalgi dadila. Bertsolaritza ez baita bazkalondoko gimnastika osasuntsu bat edo txapelketan ebaluatzen den performantzia bat bakarrik. Orainaren erresonantzia berezia da, atabal bihurtutako gure hitzen larruari ematen dionean. Gure odolaren bat-bateko hotz-beroek euskaraz plazara jalgitzeko beharrezkoa duten ütürri-begi sofistikatuenetarik bat. Gure hitzei etengabe lehen aldian bezala sortzeko freskura eskaintzen diena. Eta gu hartaz egarri! Bertsolariak, eskuak sakeletan hitzen lihoa iruten duenean, munduaren antzerkitxoa berriz jokatzen digu, poesia eta hitz hutsez. Hitza doinuan ohatzen da. Xiberotarrez doinuari ahaidea erraten diogu: ahaideak hitza lau haizetara airarazten du, eta honek bere sortzaileari eskapatzea baino destino ederragorik ez du. Txoria txori, bertsoa bertso, zaharrak berri eta hitzak munduko zarata bortitzari: xoooo…

**Maika Etxekopar Lougarot**



# Argibide eta irizpideak

## ARGIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkarteak urtero argitaratzen duen bertso bilduma da *Bapatean.*

2.- *Bapatean* 2025an, 75 bertso saioetatik hartuta, 93 bertsoalditako 709 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin.

3.- Liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolarien plazako saio kopuruen arabera. Kopuru horietatik kanpo geratu dira sariketatako plaza eta bertsoen zenbatekoak. Gainera, plazako bertsoaldien hautaketarako, aniztasuna helburu, beste aldagai batzuk ere hartu dira kontutan: herrialdetasuna, generoa, adina, saio mota, doinu ezezagun edo berriak...

4.- Badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. 2025ean 289 saio grabatu dira entzuteko euskarrian; 434 oren orotara.

5.- 2025. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertsopaperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

6.- Bertsoaldiren batean potoren bat ageriko balitz, bertsolariaren baimenarekin argitaratu da; poto eta guzti argitaratzea merezi duen bertsoaldia zela iritzita.

7.- *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* (2) (Bertsozale Elkartea, 2023) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako Bertso *Doinutegiaren* (3) arabera izendatu dira. Bestalde, Bertsozale Elkarteak onartutako Bertso estrofak izendatzeko irizpideak (4) lanaren arabera izendatu dira neurriak liburu honetan.

8.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan (XDZ) jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

9.-*Bapatean* egitasmoak Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordetzaren Ondarea diru-laguntza jaso du. Horrezaz gainera, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren jarduera babesten dute: Eusko Jaurlaritzak (Kultura sailburuordetzak; Ondarea), Nafarroako Gobernuak (Euskarabidea) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Hizkuntza Berdintasuna).

10.-Jende askoren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamaika grabatu eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.

11.-Bertso lerroak idazteko bi tradizio ditugu bizirik: batetik, puntu osoa lerro bakarrean idaztekoa (Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarren) eta bestetik, hemistikioka idaztekoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian). Bi tradizioek bizirik segi dezaten, bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideei jarraiki, holaxe jokatu dugu:

- Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan sortutako bertsoen puntuak lerro bakarrean ematea.
- Arestian aipatu kasuetan, araberako neurrien izendapena baliatzea (adibidez: zortziko txikia beharrean, lau puntuko txikia).

Aurrerantzean ere, eta guztioi esker, ahozko ondare hau biltzen, antolatzen eta hedatzen ariko gara hau

**Bertsozale Elkartea**

(1) https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/bilaketa

(2) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/12651-bat-bateko-bertsoak-idatziz-emateko-irizpideak

(3) http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/bilaketa

(4) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3418-bertso-estrofak-izendatzeko-irizpideak





# Bat-bateko bertso hautatuak

# AMURRIO

2025-01-03

**Bertsolariak**

Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Sustrai Colina, Joanes Illarregi, Nerea Ibarzabal eta Beñat Gaztelumendi

**Gai-emailea**

Unai Elizasu

Hogeigarren urtea da Amurrioko Antzokian Txapelketa Nagusiko finalisten saioa egiten dutela. Aurten ere, urtearen hasieran, 150 lagun bertan bilduta elkartu dira zortzi finalistak.

**M. Lujanbio – A. Arzallus**

Gaia: 2006an etorri zineten lehenengoz hona. Orduko Barakaldoko olatu hori hasi eta geroztik, urtearen hasierako zita hauxe duzue Amurrio. Aurten 20. aldia, datorren urtean 21. aldia…

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Ezagutu zuenak*



**A. Arzallus**
Ai! Bi mila ta seitik
urteak joan dira
**M. Lujanbio**
merezi al du jartzea
atzera begira?
**A. Arzallus**
Baina agindu hori zen
gu haruntza jira
**M. Lujanbio**
ordun gazteak ginen
eta orain, tira!

**M. Lujanbio**
Orain gazte xamarrak
esan genezake
**A. Arzallus**
tira hortan gauza asko
kabitu nitzake
**M. Lujanbio**
orain dela hogei urte
gu bai elegante!
**A. Arzallus**
Baina zuek *setenta*ko
kinta bat zerate.

**A. Arzallus**
Eta ni sortu nintzen
laurogei pasata
**M. Lujanbio**
nerea zure inbidiz
horra zure data
**A. Arzallus**
beraz zure gurdirantz
ez nazazu saka
**M. Lujanbio**
zuk lehenengo bertsoa
noiz zenuen kanta?

**M. Lujanbio**
Bi mila ta bostean
lehenengo finala
**A. Arzallus**
nik uste hirugarren
aldiz han zinala
**M. Lujanbio**
zu ere hantxe zinan
mehe, fin-fin, hala
**A. Arzallus**
Maialen hau jolasa da
hau ez da Triviala.

**A. Arzallus**
Baina hartu nahi baduzu
zuk gauza zorrozki
**M. Lujanbio**
orduan beste asko
zeuden segur aski
**A. Arzallus**
Ai! Maialenek gauza
gehiegi dakizki
**M. Lujanbio**
Egaña oroitzen dut
ta horrekin aski.

**M. Lujanbio**
Berrogei ta hamar urtez
aritu zen hura
**A. Arzallus**
ta azkenean nolabait
erori putzura
**M. Lujanbio**
gero Jon Maia ere bai
figura modura
**A. Arzallus**
Iturriaga ere
pentsa ze figura!

**A. Arzallus**
Dominoko pieza hoiek
denak banan bana
**M. Lujanbio**
bistan da ai gu baino
zaharrago dirana!
**A. Arzallus**
Kontuz orain haizea
dator guregana
**M. Lujanbio**
atzeko hoiek botatzen
izango da lana.

**M. Lujanbio**
Baina eutsiko diogu
guk egoskorrean
**A. Arzallus**
heldu eskutik eta
sudurrak aurrean
**M. Lujanbio**
hurrengo urtetan ere
modu gogorrean
**A. Arzallus**
hemen egongo gera
gu traza zaharrean.

**A. Arzallus**
Berrogei urte arte
zuk hementxe segi
**M. Lujanbio**
Amurriori eman
nahi diot gehiegi
**A. Arzallus**
jendeak esango du
Maialen ze heavy![1]
**M. Lujanbio**
Amona bat da baina
beti hor egon bedi.

**M. Lujanbio**
Zeren oraindik ere
bera da onena
**A. Arzallus**
bueno, hori da berak
esaten duena
**M. Lujanbio**
lehengo maila dauka nahiz
ja ez den morena
**A. Arzallus**
hau ez degu Maialen
da Matusalena.

**A. Arzallus**
Beraz bizi liteke
zazpi mendez edo
**M. Lujanbio**
ta zu nire ondoan
nahi zintuzket bero
**A. Arzallus**
zure ondoan beti
Amets zero-zero
**M. Lujanbio**
pareja ona gara
eta hortan bego.

**M. Lujanbio**
Gu baino hobeak gero
etor ditezela
**A. Arzallus**
zuk hori bota dezu
erronka bezela
**M. Lujanbio**
hor atzean kontrario
ilera itzela
**A. Arzallus**
ni zure atzetik noa
gordeta horrela.

**A. Arzallus**
Badaezpada Maialen
besoak zabaldu
**M. Lujanbio**
zu nere atzetik heldu
pausorik ez galdu
**A. Arzallus**
kontuz hala ere otoi
ez beti zapaldu
**M. Lujanbio**
ametsetan gabiltza
zentzurik bai al du?

**M. Lujanbio**
Hobe da hogei urte
aurten ospatzea
**A. Arzallus**
bai, ta ospakizun hori
denei gustatzea
**M. Lujanbio**
latza da Amurriokoen
gogotan sartzea
**A. Arzallus**
ta are latzagoa
zuekin zahartzea.

**A. Arzallus**
Zeren zahartzeak ere
dena ez du txarra
**M. Lujanbio**
nik errebindikatzen
dut dela earra
**A. Arzallus**
zimurtuta dotore
dago irriparra
**M. Lujanbio**
bertsoak finak eta
txaloen zaparra.

**M. Lujanbio**
Nunahi nahi genduke guk
horrelako plaza
**A. Arzallus**
bai ta edonun ez da
hartzen honen traza
**M. Lujanbio**
Aupa Amurrio berdintzen
ez dena erraza!
**A. Arzallus**
Agur ta ahal baduzute
beste hogei pasa.



1 "Jebi" ahoskatu du.

# OIARTZUN

2025-01-05

**Bertsolariak**
Maider Arregi, Eneritz Artetxe, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Ane Labaka,
Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Andoni Rekondo
**Gai-emailea**
Amaia Agirre

Urtero bezala, Elorsoro kiroldegian gauzatu da Sare ekimenak antolatuta, euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko elkartasun bertso saioa.

**M. Arregi**

Gaia: Batzuetan une, leku eta distantzia jakin batera egoteak begi bat galtzea ekar dezake. Halaxe pasa zitzaion inauterietan nire herriko gazte bati, Xuhar Pazosi. Karga polizial batek distantzia motzera eta zilegi ez den altura batera tiro egiteak atzera bueltarik ez duten ondorioan utzi dizkio lagunartean ondo pasatzera baino joan ez zen Villabonako gazte bati.

Neurria: Hamabiko handia
Airea: *Kontzientzia izaten degu*

Begi eder bat zartatu zuten
poliziaren boterez
nahiz eta igual ez tiro egin
bertara jotzeko xedez
errelatotan gero ikusten da
makinatxo bat interes
ta nazkatu naiz epelkeriez
ta nazkatu naiz ETBz
segurtasunaz hitz egiten da
baina hori zer da berez?
Indarkeria eurak sortua
izango ez balitz legez.

Beraz begi bat utzia dute
nahikoa modu txarrean
epaitegian ordea euren
alde daude indarrean
eta nahiz eta herritar asko
ari garen marmarrean
polizia bat ipini dute
epailearen aurrean
ta bera libre utziko dute
oin zigortu beharrean
akatsak bando denetan daude
ta zigorrak bakarrean.

Nik horregatik ez dut sinisten
polizien erreforma
kontraesankor egiten zaizkit
polizia eta ona
kontrola baita zapalkuntza bat
badagonaren sintoma
ta horregatik iritsi baita
gure herri zahar hau hona
Xuharren alde ordea sortu
egin dute plataforma
amorru honek hartu dezala
elkartasunaren forma.



Bertso Eguna. Bertso-poteoa. Lesaka. 2025-01-25. XDZ

# ONDARROA

2025-01-06

**Bertsolariak**
Xabat Galletebeitia, Josune Aramendi, Miren Amuriza eta Aitor Sarriegi
**Gai-emailea**
Iñaki Lersundi

Errege Eguneko beste jaialdi bat, urterokoa, egin dute Ondarroan. Oraingoa Zaldupe Kiroldegian eguerdian eguraldi txarraz, euritan.

**M. Amuriza – X. Galletebeitia**

Gaia: Hogeita hemeretzi urte dira Mikel Zabalza erail zutela. Eta 2024ko azaroaren 30ean Intxaurrondoko kuartelaren aurrean plaka bat ipini dute beraren omenez. Eta harrian bertan jartzen du: "Idatzita geratzen da Mikel kuartel honetan hil zela"

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Lili bat ikusi dut I*

**X. Galletebeitia**
Hamaika oroitzapen
abesti ta kanta
errealitateari
ekimenak falta
plaka bati jartzeko
teloia tiraka
ia berrogei urte
igaro dira ta!

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Urzo xuri polit bat A*[2]

**M. Amuriza**
Familiak eraman
plakaz eta lorez
bete dira hamaika
lekutxo kolorez
baina erakundeek
ardurak han gordez
biktimatzat nor hartzen
dute eta nor ez?

**X. Galletebeitia**
Ez zen aspaldi pasa
ia bart goizean
baina zer gertatzen da
hortara ohitzean?
Poliziaren esku
hotzetan lohitzean
plaka bat falta zaigu
kuartel bakoitzean.

**M. Amuriza**
Beraz joango bagina
geu kuarteletara
ta izen-abizendun
plaka bana atara
zeren agintarien
ahoetan jada
memoria eslogan
merke bat ez al da?

**X. Galletebeitia**
Ta esloganak bete
ditzake gidoiak
dena estal lezake
kasik hormigoiak
ta zer dio ireki
nahi dugun meloiak?
Batzuk plakak dauzkate
besteek galoiak.

**M. Amuriza**
Plakak eta galoiak
ipinizaleak
inoiz ez gara izan
hartzeko kaleak
baina ez dira amaitu
ez gure galdeak
ta non daude orduko
torturatzaileak?

**X. Galletebeitia**
Bulegoetan daude
hori dute ordain
zauri denak ez dira
bilakatu orbain
guardia zibil, polizi
nazional zein ertzain
inpunitatea dute
lehen eta orain.

**M. Amuriza**
Ta inpunitateari
erantzunen bat zor
zaionez gero jarri
behar gara geu hor
denborak dena osatzen
du esaten da jator
kasu hontan denbora
gure kontra dator.

**X. Galletebeitia**
Gainera gu denboran
ez gaudenez geldi
lehen esan ez zena
orain esan bedi
orainak gero bat du
aurrean ageri
atzera begiratuz
gogoratzen segi.

**M. Amuriza**
Gogoratzen jarraitzen
da bertsolaritzan
herrigintzan, kulturan
nola hor gabiltzan
gatazkak pluralean
badoaz behar gisan
bakeak ere ezin du
bat bakarra izan.

2 Bi doinuak txandatuz kantatu dute.

# HERNANI

2025-01-10

**Bertsolariak**
Unai Agirre eta Aitor Mendiluze

Sagardotegi denboraldiaren irekiera dela medio, Itxas-Buru sagardotegian antolatutako bertso-afaria. Librean aritu dira bertsolariak.

**U. Agirre – A. Mendiluze**

Neurria: Zortziko txikia
Airea: *Bizitza diot mutil*

**U. Agirre**
Nola ibiltzen geran
daude jakinian
sardoteitik etxera
joan ezinian
kaleik zapaldu gabe
postura finian
ez ginan hola ibiltzen
hoien adinian.

**A. Mendiluze**
Gazteagoak ote
dauzkazu buruan?
Inbiria puntu bat
hoien inguruan
larunbatean juerga
ta erre orduan
guk astean lau juerga
egiten genduan!

**U. Agirre**
Gorputzari emanaz
hainbeste kastigu
aurrian dauden batzuk
zerate testigu
zenbat parranda egin
degun badakigu
orduan astian lau
bainan orain hiru.

**A. Mendiluze**
Orain hiru astean
igual baina segun
eta agenda nola
antolatzen degun
lehen astean lau eta
ez genbiltzan bigun
oain ez dakigu zenbat
gelditzen zaizkigun.

**U. Agirre**
Orain bizimodua
oso da jakina
crossfit, gimnasiyua
eta tripa fina
mendian gora, behera
jendeen ahalegina
bizitza hori ez da
guretzat egina.

**A. Mendiluze**
Crossfit, gimnasioa
kirola, letxea…
Kiroldegi eginda
zenbaiten etxea
baina ez al da pena
izango kentzea
horrenbeste kostatu
dena betetzea?

**U. Agirre**
Ez du gezurra esan
gainera seriyo
tripa honek sortzen dit
hamaika sesiyo
zenbat kostatu zaidan
garbi asko diyo
baina izango nuke
pixka bat gutxiyo.

**A. Mendiluze**
Hobe pixka't gutxigo
izango bazendu
denetatik sobera
baita nabarmendu
baina behin esateko
gaur nola gauden gu
kendu nahi dezu baina
ze aldetik kendu?

**U. Agirre**
Aitorrek orain badu
nahikua sasoia
planta horrekin bota du
bere arrazoia
alkandora ere ez du
ekarri doi-doia
justu-justuan dezu
bigarren botoia!

**A. Mendiluze**
Baina botoiengandik
al zaude hasia?
Eskerrak tela ez den
bere eskasia
hori propio daukat
pita hariz josia
baina dotorea da
amak erosia.

# ARAMAIO

2025-01-10

**Bertsolariak**
Alaia Martin, Ane Zuazubiskar, Sustrai Colina eta Gorka Pagonabarraga
**Gai-emailea**
Xabin Abarrategi

Ehun lagun inguru bildu dira Aramaioko Antzokian urteroko jaialdiaz gozatzera. Kartelean iragarrita Amets Arzallus zegoen, ezin etorria egokitu zaio ordea, eta bere ordez Sustrai Colina etorri da.

**G. Pagonabarraga – A. Zuazubiskar**

Gaia: Herriko ekimen guztietan parte hartzen duzuen bi gazte zarete. Santa Agedara ere apuntatu zarete, baina zuen dohaina ez da afinatzea. Kantuan hasi zarete eta korokoak begira dituzue.

Neurria: Kopla handia
Doinua: *Hor goian goian goldia*

**A. Zuazubiskar**
Gu gazte motibatu bi
nork agindu digu guri?
Zuzendariak makilarekin
jo nahi digula dirudi. (bis)

**G. Pagonabarraga**
"Etxeko andre mondrongo
hik ez don asko emongo"
esan orduko esan didate
"Ez duzu kantatzen ondo". (bis)

**A. Zuazubiskar**
Ta iritsita gero gora
gizon bat txaloz denbora
etxe hontako nagusi jauna
erdi gorra izango da. (bis)

**G. Pagonabarraga**
Ez dugu egingo galde
geurean terko baikaude
etxe hontako txakurrak eta
gor guztiak geure alde. (bis)

**A. Zuazubiskar**
Santa Agedan dena grabe
ta herria parez pare
etxera joan behar al dugu
ahotsik urratu gabe? (bis)

**G. Pagonabarraga**
Nahiz sakon hartu arnasa
gure ahotsa eskasa
nik solfeoan ez nintzen Ane
sol-en ikurretik pasa. (bis)

**A. Zuazubiskar**
Ni nintzenean gaztea
txirulan ja desastrea
erabaki dut hurrengorako
poltsa pasatzen hastea. (bis)

**G. Pagonabarraga**
Zuen belarriko penak
eta geure poltsarenak
ba nik dardarka jarri nahi ditut
herriko gurutze denak. (bis)

**A. Zuazubiskar**
Gurutzeak akorduan
ta guk kezka bat ondu han
play-back egiten hasi gaitezke
BBK Liven moduan. (bis)

**G. Pagonabarraga**
Kontua beti bardina
horra egia gordina
denak etxean egongo ziren
gu etorri ez bagina. (bis)

**A. Zuazubiskar**
Ze eskasak kantari bi
min lautik ja hamabiri
Santa Ageda bigarren aldiz
bihurtu dugu martiri. (bis)

**G. Pagonabarraga**
Martiri denak triste hor
eguna hain joan da gogor
ta Gaztetxean hurrengo astean
bertsio gauren bat dator. (bis)

**A. Zuazubiskar**
Entsaiatzen urtez urte
ibili izanaren truke
gure buruan bertsioa be'
desafinauko genduke. (bis)

**G. Pagonabarraga**
Eginez trantsizioa
amaitu da bertsioa
igual probatu beharko genuke
geuretzat perkusioa. (bis)

**A. Zuazubiskar**
Gabiltza belarri kontra
pausoa albora bota
bertso eskolara joan gaitezen
hor asko ez du inporta. (bis)

**G. Pagonabarraga**
Eta bertan aritu gu
belarri txar buruz buru
beste askok ere egin badute
karrera egingo dugu. (bis)

# BAIGORRI

2025-01-11

**Bertsolariak**
Nerea Ibarzabal, Miren Artetxe eta Haira Aizpurua
**Gai-emailea**
Amaia Kastorene eta Xalbat Altzugarai

Basaizea elkarteak antolatutako *Bertso Beer Cheese* afari musikatua. Larogeita hamar lagunek mukuru bete dute Bixentainea. Patxi Amulet eta Bastien Mariane aritu dira musikari gisa.

**M. Artetxe – H. Aizpurua**

Gaia: Basaizeako kideak zarete. Gaurko afaria prestatzeko IKEAra joan zarete falta zenuten materialaren erostera. Rakleta egiteko makina, ordezkatu behar diren bi aulki, eta anpula pare baten bila zabiltzate. Dendako panelak segitzen hasi zarete.

Neurria: Bi puntukoa ertainaren moldekoa
Airea: *Erraldoiak dantzan daude*



**M. Artetxe**
IKEAko paretetan ze ederra dena!
Plegatzen den ispilu bat! Justu behar nuena.

**H. Aizpurua**
Komunetan ez dugu ta heldu zaut gogorat
baina aukeratzekotan ispilu arros bat.

**M. Artetxe**
Eta pasabide hontan ohe eder batzuk
bi metro dituen hori entseatu behar dut.

**H. Aizpurua**
Eta tapiza eder bat har dezagun hara!
Paretan eman duguna zaharregia da.

**M. Artetxe**
Hemen lau mahai bi kadera Haira ze ametsak!
Hemengo dena behar dugu Basaizearentzat.

**H. Aizpurua**
Ni fijatu egina naiz hortxe den alfonbran
zuk hartu zuk Tupperwareak ez dira inoiz sobran.

**M. Artetxe**
Ezkerrera, eskuinera, aintzin, gibelera
hemengo lekuetatik ezin da atera!

**H. Aizpurua**
Kanapeak ta oheak bada aukera asko
beste karro bat behar dut nire etxerako!

**M. Artetxe**
Hemendik ateratzea ez denez erraza
Egin dezagun IKEAn asteburu pasa.

**H. Aizpurua**
Koadroetan kabitzeko nahi dugun desirak
har dezagun bat ta eman gure argazki bat.

**M. Artetxe**
Hemen dena dugu Haira hori da egia.
Egin dezagun IKEAn bertso-afaria!

**H. Aizpurua**
Eta bukatzeko hortxe, begira! Begira!
Hartu, ze bizkotxa hoiek hoberenak dira.

**M. Artetxe**
Gero hau dena muntatzen biok dena dela
ez dugu jakinen ta hauek munta ditzatela.

**H. Aizpurua**
Gure zentzua ere ez da Miren hain argia
hau baita pasatzen giren bosgarren aldia.

**M. Artetxe**
Erosi ditugu berrehun gauza aberats gisan
Jarri IKEAren logoa hurrengo afitxan.

**H. Aizpurua**
Orain dena eraman behar hau da hau epela!
Nik espero dut kofrean sartu eginen dela.

# LESAKA

2025-01-25

**Bertsolariak**
Julio Soto, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Peru Abarrategi, Maddi Ane Txoperena eta Alaia Martin
**Gai-emailea**
Alaitz Rekondo

*Bertso Eguna 2025* ospatu da Lesakan. Goizean *Oinak Bidean* ibilaldia egin da, Lesakako bertsolaritzaren historiaren inguruko itzuli gidatua. Eguerdian, bertso poteoan aritu dira bertsozaleak, hiru bertso eskolatako bertsolariak kantuak direla. Epifora, Lilibertso eta Aramaioko bertso eskolako kideek kantatu dute librean: Ane Zuazubiskar, Danel Herrarte, Iraide Onaindia, Manex Agirre, Eli Pagola, Maider Arregi, Oihana Arana, Uxue Alkorta, Aitor Etxebarriazarraga, Asier Galarza, Ibai Amillategi eta Iker Uriarte.
Arratsaldean, Harriondoa Kultur Etxea jendez beteta zela, *XXI mende, 25 (H)illbeltz* bertso jaialdia izan da. Eta gauean, sagardotegian afaria eta bertso jarri musikatuen txanda izan da. Bertako *Hor Gu* taldeko kideek Lindurrenborda sagardotegian, beraien izena kupeletan idatzita dituzten bertsolarien bertsoekin osatu dute emanaldia, Manex Pagola musikaria lagun.

**M. A. Txoperena**

Lehen puntua emanda

Gaia: Lesaka, azken urteetan bizileku duzuna.



Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Zeruari begira*

**Nola definituko**
**zenuke Lesaka?**
Mendia aldera badu
nahikoa aldapa
gustatzen da zerbeza
ta baita koñaka
zerbait izatekotan
bestazale da ta. (bis)

***Zubiak eraikiz* da**
**herriaren lema**
hori egia ote den
hori da problema
ze barrenean badu
gatazkako sena
baina lelotan polit
paratzen da dena. (bis)

**Herri ttikia sarri**
**infernu handia.**
Oraintxe erran duzu
zuk Alaitz egia
herri kotilla baita
gauza nabaria
baina lagunartea
a ze oparia! (bis)

**Euskarak arnasgune**
**haundia du hemen**
horri ere erran behar
genioke ejem!
Denek ez dute egiten
ta dugu nabarmen
baina gaur bai gaur Bertso
Eguna nola den. (bis)

**Gaurkoan bihurtu da**
**bertsoaren kabi**
ta horregatik ari
gara gu kantari
gero Linddurrenbordan
hara ze afari!
Parranda izanen da
eguneko sari. (bis)

# PASAIA

2025-02-01

**Bertsolariak**
Alaia Martin, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio eta Ane Labaka
**Gai-emailea**
Amaia Agirre

Pasai Donibaneko Bixi-Bixi elkarteak urteroko bertso saioa atondu du Juanba Berasategi Aretoan, larunbat arratsaldez.

**O. Iguaran - A. Labaka**

Gaia: Maria Luisa Erdozio duela 100 urte hil zen bertsolaria da. Azkaingo Herriko Etxeak herriko gune bati jarri dio bere izena. Ane, zuk Txakur Gorri kolektiboarekin beste lankidetza batekin *Orainmenean* idatzi zenuen, bertsolaritzaren genealogia feminista. Plazida Otañori buruzko liburua idatzi zenuen zuk, Oihana. Zuentzat zer dira aitortza hauek? Zergatik da garrantzitsua plazara ateratzea?

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Iragan egun batez*



**O. Iguaran**
Gu bi gehiago gara
mende hauen sokan
bertsoa hartu dugunak
guretzat ahotan
lehen kantatu zuten
etxe ta auzotan
baina sinistera heldu
gara gu askotan
duela gutxi ari
garela bertsotan.

**A. Labaka**
Genealogia bat
degu arpilatu
nahiz eta egoera
orain makilatu
nahiz ta haien garaian
plazetan brillatu
aurkitu egin ditugu
aurkituz pilatu
ta zergatik ez ziren
gaur arte bilatu?

**O. Iguaran**
Inor ez baitzen jarri
beraiei begira
guk isiltasunari
egin nahian tira
liburu marduletan
datutan deskriba
foru lege bat dago
bost mende neurrira
daukagun lehen froga
debeku hori da.

**A. Labaka**
Debekua jarri zen
ta ez emekiro
nornahik egin dezake
begiradaz tiro
aldatzen doa dena
baina ze astiro!
Oholtzara igo gera
esan dute "Igo!"
ta hutsetik hasten gera
behin eta berriro.

**O. Iguaran**
Baina gure barruan
ahots bat oihartzun
entzun gabeko horri
nahi diot erantzun
zuk ere sen berbera
nola daramazun
hutsunez oroitzeak
badu nahiko zentzun
kantatu zela baina
ez zaiela entzun.

**A. Labaka**
Maialenek aipatu
zuen behin gobara
badakigu zeudela
nahiz ta ez oholtzara
agian desberdin da
hau azken bolada
gu gehiago aldatzen
saiatuko gara
haiekiko ahanztura
politikoa da.

# IRUÑEA

2025-02-06

**Bertsolariak**

Aissa Intxausti, Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Josu Sanjurjo, Joanes Illarregi eta Ekain Alegre

**Gai-emailea**

Ander Aranburu

Hogeita hamalaugarren *Bertsoaroa* antolatu du aurten Nafarroako Bertsozale Elkarteak Iruñeko Udalarekin batera. Sei ekitaldi izan dira guztira, hau bigarrena, gazteen bertso-tramaren ondoren iritsi dena. Lehendabiziko jaialdi hau Nafarroako Antzerki eskolan burutu da.

### A. Labaka – J. Sanjurjo

Gaia: Bost urte dira Zaldibarko zabortegiko hondamendia gertatu zela. Bi langile hil ziren: Alberto Soroluze eta Joakin Beltran. Soroluzeren gorpuzkinak urte eta erdi geroago aurkitu zituzten. Beltranenak oraindik ez dituzte aurkitu. Zabortegi hartako bi langile zarete eta zabortegi azpitik ari zarete pasatzen A-8tik.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

**A. Labaka**
Bost urte oso pasatu dira
batzuentzat tramiteko
ez al da aski denbora Josu
egi dena jakiteko?
Kamioiean beste behin ere
ta mundua isilpeko
tamalez biok gertuegi gaude
ez ikusi egiteko.

**J. Sanjurjo**
Peajea ere igo egin dute
nahiz eta ez zegon beharrik
bost urte pasa dira hain geldo
guretzat behintzat alferrik
nahiz ta etxeko izarapean
bota genun guk negarrik
jendearentzat ez al da izan
modako gai bat bakarrik?

**A. Labaka**
Modatik kanpo sentitzen naiz ni
bainaiz langile xehea
gertatu zen ta gaur artekoa
denbora lerro mehea
zenbat gehiago behar ote da
ohartzerako? Mendea?
Jendeak sortzen duen zaborrak
hiltzen duela jendea.

**J. Sanjurjo**
Jendea hiltzen duen gisara
bizitza asko zapuzten
berriro ere erdi negarrez
gabiltza biak biluzten
politika ta botereetsuek
nola bazterrean uzten
orduz geroztik etxean ez da
telebistarik ikusten.

**A. Labaka**
Baina besteen etxeetan du
pantailak aski botere
eta mundua ez al da hori
zaborrezko erliebe
langile xehe esan det lehen
ta barruak xehe-xehe
tamalez ez det aukera asko
lanez aldatzeko ere.

**J. Sanjurjo**
Prejubilatu egin nintzen ni
guztiontzat atsedena
ta terapian hartu ohi dugu
etxeko laurok kemena
gure agenda ez ote dugu
aurrerantz dijoan trena?
Hilabetean ahaztu dugu
Valentzian pasa dena.

# PORTUGALETE

2025-02-14

**Bertsolariak**
Irune Basagoiti, Izaro Bilbao eta Araitz Katarain
**Gai-emailea**
Iholdi Beristain

Ezkerraldeko Zaparrada Feministak herriko merkatuan antolatutako bertso-afaria.

**I. Basagoiti – I. Bilbao**

Gaia: Lagunak eta pisukideak zarete. Bizitza kolektiboan egingo zenutela zin egin zenioten elkarri. Izaro, gaur erabaki duzu Iruneri kontatuko diozula bikotea duzula eta bikotearekin bizitzera joango zarela.

Neurria: Zortziko txikia
Airea: *Gazteak Lizargatez*



**I. Bilbao**
Etorri naiz kontatzen
erdi damututa
kasik bota didazu
guztiaren kulpa
aldarria erreza
ta amargatuta
ze eiten da bazaude
enamoratuta? (bis)

**I. Basagoiti**
Ba ahal bada uztea
zuk albora laga
ta lehen bezela nigaz
kalera atara
nola aldatzen diren
gauzak kamarada!
Gorrotatzen zenduna
bilakatu zara. (bis)

**I. Bilbao**
Ez naiz bilakatu ni
egin nau denborak
alde batera utzi
minak ta aizkorak
jarri gura ditugu
balkoi denan lorak
ta Balentin deituko
dugun katutxo bat. (bis)

**I. Basagoiti**
Bakarrik falta zaizu
ezkontza zibila!
Nazka sortu didazu
ai oraintxe pila!
Zertan kanpora joan
etxe berri bila?
Behintzat gure etxera
etorri dadila. (bis)

**I. Bilbao**
Berez ni ez nengoke
ideia horren kontra
baina zuretzat hori
litzake porrota
ta lotsa ematen dit
behar dut hori bota
ohea egiten ere
ez du jakingo ta. (bis)

**I. Basagoiti**
Zuk jarri edredoia
gainera biguna
beraz agintaria
behar du laguna
ta nik horra sartzeko
nire gaitasuna
hori ez ote zen ba
polimaitasuna? (bis)

**I. Bilbao**
Hainbeste aztertuta
nahi gendun kondukta
Irune jada daukat
guztiz ahaztuta
ez 'zazu epaitu ta
ez jarri hor lupa
nahi baduzu gauero
deituko zaitut ta. (bis)

**I. Basagoiti**
Bai eta ordu eta
leku konkretuan
horrela harremana
dago perfektu han
lasai eta ez nabil eta
nire mendekuan
zoriontsu izan zaitez
zoazen lekuan. (bis)

# LEKAROZ

2025-02-15

**Bertsolariak**
Urko Gartzia eta Aitor Mendiluze
**Gai-emailea**
Ainhoa Astiz Goñi

Legate elkarteak antolatutako bertso-afaria. Gai librean aritu dira lehen zatian; gaiak emanik bigarrengoan.

**U. Gartzia – A. Mendiluze**

Gaia: Hemen bazen kaputxinoen eraikin bat, ikastetxea zena, eta duela urte batzuk eraitsi izan zena. Beti entzun da Gipuzkoa aldeko erreboltari guztiak bidaltzen zituztela Lekarozera nonbait zuzendu nahian. Aitor, zure nahiaren kontra ikastetxera bidalitako gazte bat izango zara. Eta Urko, zu garai horretan zorrotzena zen kaputxino horietako bat izango zara. Ikastetxeko urteak eta gero, hamabortz-hogei urte pasatu dira eta kanpoan egin duzue topo; Urko, zu ja zure malda beheiti, zure azken urteetan, eta Aitor, zu hor nonbait, zuzendu zinen zerbait ere.

Neurria: Zortziko txikia
Airea: *Mando baten gainean I*

**A. Mendiluze**
Kaputxino alua
sotanai eutsia
zure alde txarra det
ondo ikusia
kanpoan ikasi det
dakidan gutxia
eskerrak ahaztu nuen
zuk erakutsia.

**U. Gartzia**
Atzendu zaizu dena
hori daukat garbi
nahiz egin zenituen
nahiko egonaldi
nonbait zigorrekin ez
zeunden horren adi
zeren bihurtu omen
zara bertsolari.

**A. Mendiluze**
Hasieratik hori
zen nere asmoa
familiaren ustez
ez zena sanoa
orain bertsoak botaz
plazaz plaza noa
zuk nahiago zenuen
gregorianoa.

**U. Gartzia**
Ez dakit baina zer den
gregoriano hori
nahiz ta nik ezagutu
nituen bat o bi
nire zigorra ez zen
izan zure hilobi
ez nuen erabili
ongi regla hori.

**A. Mendiluze**
Ez baina ez zenuen
galdu ohi denbora
mezetara behartu
ta gu disgustora
guri ogi lehorra
zuk kaliza gora
baino ardo gehiena
mezatik kanpora.

**U. Gartzia**
Hortaz jartzen zineten
ardoetan bapo
etorri zinetenez
ia ezertarako
haserre zeundeten nik
jotzen nizuelako
baina neri ordaintzen
zidaten hortako.

**A. Mendiluze**
Beraz ordaindu eta
egindako lanak
Jainkoagatik ziren
zuk neri emanak
ederki moretuko
zaizkizu ezpanak
ematen badizkizut
zor dizkizudanak.

**U. Gartzia**
Orduan bai zeundeten
erdi umilduak
orain aldiz kejuka
ezin isilduak
nere Jainkoa ziren
orduko diruak
zure etxekoengandik
eskura bilduak.

**A. Mendiluze**
Gure eskutik ez zen
gehiegi igaro
zuenera iristen
zelako lehenago
lehen garbi neukan beraz
ta orain garbiago
zu prailea bazera
santurik ez dago!

**U. Gartzia**
Elizak hortan badu
betidanik parte
edozein izaten ahal
den gisan alkate
neri ere zerura
bidaliko 'iate
eta santua ez naiz
baina egingo naute.

**A. Mendiluze**
Hori igual oraindik
alda dezakegu
hango denei egia
esango diegu
bide berak korrita
lehen ez al gaude gu?
Ba inpernuan elkar
ikusiko degu.

**U. Gartzia**
Han nik ez dut izerdi
tantarik hustuko
ze infernua ez dut
horreinen gustuko
baina ikusiz gero
esan eta punto
ta han saludatzean
zuk esan Don Urko!

**A. Mendiluze**
Don Urko esateko
eta nondik dona?
Ez al da gradu bera
izango biona?
Hau da Aitorrek denei
esango diona:
hau da bat sua asko
gustatzen zaiona.

**U. Gartzia**
Ibili izan naiz ni
noski suen bueltan
eta gozatuko dut
infernuan bertan
zeren ni sortu nintzen
halako egunetan
sorrarazi ninduten
neri San Joanetan.

**A. Mendiluze**
Judas izateko 're
ez zinake txarra
beti izan baitzera
sos zale xamarra
hala ere jaso zazu
Aitorren oharra
orain burla izango da
daukazun bakarra.

**U. Gartzia**
Burla etorri ohi da
beti burlen truke
ta eskolan ni izan
nintzen nahiko putre
baina infernuan ez
naiz ariko kutre
ze han ere regla bat
noski izango dute.

**A. Mendiluze**
Han ere izango zera
tipo arlotea
hitzak garesti eta
debalde kolpea
konbentu zaharra ordea
lurrera botea
pena daukat barruan
zu ez egotea!

**U. Gartzia**
Bertan ni egon nintzen
ta naiz haren parte
ta orain konbentua
eraitsi didate
hori izango da ja
kaputxinoen kalte
baina lasai infernu
hortan 'kusi arte.






Bertso Eguna. Jaialdia. Lesaka. 2025-01-25. XDZ

# ERRIGOITI

2025-02-22

**Bertsolariak**
Nerea Elustondo eta Arkaitz Estiballes

Errigoitiko Ekimen Taldeak Ikuilu elkartean apailatutako bertso-bazkaria. Hastetik buru librean aritu ziren bertsolariak, giro bero-beroan.

**N. Elustondo - A. Estiballes**

Gai librean.

Neurria: Zortziko handia
Airea: *Gaixo nengoen joan dan aspaldin*

**A. Estiballes**
Kasualitatez ez nago hemen
ta zu 're ez Nerea *en fin!*
Ez dizut inoiz kontatu baina
beharko zenduke jakin
*Pakete*k beti diosta "Zatoz
etorri nahi duzunakin"
eta nik beti esaten diot
"Nerea Elustondokin".

**N. Elustondo**
Ai gure Arkaitz beti izan da
pixka-pixka bat kabroia
baina neronek ere badaukat
nere alde neurekoia
zuk eskatuta natorrela ta
horrekin jo duzu goia
egia esan zer den ez dakit
ohorea ala marroia.

**A. Estiballes**
Horrek ohore bat behar luke
guztiek jakin dezaten
kontuz ibili Estiballesek
ze influentzi lezaken!
Hona zakartzat giro onera
ondo edan eta jaten
eta *en kanbio* Gipuzkoara
ez nauzue eramaten.

**N. Elustondo**
Hori horrela kantatu dezu
ta hartu nauzu hain estu
egia esan guzti-guztia
ez baitago nere esku
baina alperreko drama guztiak
nahi nizkitzuke aurreztu
zuk Gipuzkoan kantatzekotan
curriculuma aurkeztu.

**A. Estiballes**
Curriculumik noski ez daukat
jarriz gero parez pare
zuk Gipuzkoako txapelketetan
ze bide ta ze ondare!
Azkenengoan ere seigarren
nahiz sentitu zinan grabe
hain gaizki ere ez 'zazu hartu
bi txarragoak badaude.

**N. Elustondo**
Eskertzen ditut egia esan
zure esaldi nobleak
baina ez dira hain errez pizten
Nerearen koloreak
exkaxagoak bi soilik dira
zure arrazoi gordeak
ba bi baino 're gehiago dira
neroni baino hobeak.

**A. Estiballes**
Neretzat zara zapata azpian
sartu daitekeen iltzea
galdezka zaude curriculuma
posible den berdintzea
nik txapelketan aurkeztu aurretik
nahiago nuke hiltzea
nere kasuai deitzen diote
errentatik bizitzea.

**N. Elustondo**
Zerorrek ere txapelketetan
badituzu nahiko saio
burua ere bilakatua
bi txapel beltzen garraio.
Egia esan Arkaitz ez nauzu
oso linguista iaio
hemen ez dakit, horri Gipuzkun
koldarkeri deitzen zaio.

**A. Estiballes**
"Aurkeztu zaitez" eskatzen datoz
bai hemengo ta bai hango
hiru hauek ere esan didate
gezurrik ez dut esango
txapelketetan arrisku asko
nahiko lupetz eta fango
lau mediokreri nik ezin diet
plazer txiki hori emango.

**N. Elustondo**
Zure hilobia antza estali
desiatuaz gaur lurrez
egia esan ez naiz harritzen
banatzen duzun egurrez
ta asko ere ez naiz harritzen
esan behar dizut aurrez
txapelketara ez aurkezteak
mediokreen beldurrez.

**A. Estiballes**
Horretan behintzat arrazoi duzu
ta azaldu duzu dotore
baina aurrean bertso goseak
daude hiru gladiadore
euren artean lehiatzen dira
ezpatarik ezin gorde
eta zirkuan hirurak hiltzen
badira niretzat hobe.

**N. Elustondo**
Beraz horiek hiltzeko egin
nahi dezu nahiko ahalegin
ta hiru horiek galduta ere
omen zaizu berdin-berdin
egia esan hemen jendeak
nahiz eta hartu atsegin
zirku denetan pailasoana
norbaitek behar du egin.

# ANDOAIN

2025-03-09

**Bertsolariak**
Eneritz Artetxe, Andoni Rekondo, Nerea Elustondo, Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran eta Aitor Sarriegi
**Gai-emailea**
Maddi Etxeberria

Sahararen aldeko bertso saioa antolatu du urtero gisa Andoaingo Bertso Eskolak, Andoaingo Udalak eta Hurria-Sahara taldeak, Bastero Kulturgunean igande eguerdiz.

### A. Rekondo – A. Sarriegi

Gaia: Lagunak zarete. Biek duzue kontzientzia handia Saharako errefuxiatu kanpamenduan gertatzen denaz. Eta biak saiatzen zarete ahal den neurrian laguntzen. Aitor, urtero ekartzen du zure familiak Saharako haur bat uda pasatzera. Horretaz gain, elkartasun ekintzetan ere parte hartzen duzu eta aktiboki antolatzen dituzu elikagai bilketak zure herrian. Andoni, zure familiak ere urtero hartzen du Saharako haur bat etxean, eta Hurria-Sahara elkarteko kidea zara. Baina elikagai bilketetan parte hartzeari uko egiten diozu, apurrak ematea dela sentitzen duzu, pobreak pobreagoari laguntzen jartzea. Sahararen aldeko bertso saioaren amaieran topo egin duzue eta eztabaidan hasi zarete.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beti penetan beti penetan*



**A. Sarriegi**
Zure ta gure etxea biak
nahiko antzerakoak dira
baina ondoren biok ez gaude
gauza berdinei begira
nik parte hartu ohi dut hontan ta
diferentzia hori da
sarri ez dago alde haundirik
arrazoitik aitzakira.

**A. Rekondo**
Nere aitzaki usteko honek
eten al du zure poza?
Zure ustetan bilketarena
baita bide aproposa
lagungarria al da lenteja
espagetia, arroza?
Gero kaleetan isilarazten
badegu euren ahotsa.

**A. Sarriegi**
Nik ez det inor isilarazten
ondo dakizu laguna
gurasoek bai ume bat hartu
eta bakoitzak ahal duna
eta zuk berriz izena eman
eta hor egon zer suma
esan zaidazu egiz Andoni
zer da egiten dezuna?

**A. Rekondo**
Neurtzen hementxe ez gara hasiko
Aitor ez nazazu mindu
Sahararekin kontzientziatuta
baikaude berdin-berdin gu.
Zuk nahi dituzu bilketarako
bide denak ondo findu
nik nahiago det sakon pentsatu
kontzientziak nola astindu.

**A. Sarriegi**
Sakon pentsatze hutsarekin da
ezer aldatzea gaitza
edo kalean ikus ezazu
ematen duen emaitza
bilketarena baztertzea zuk
erabaki duzu aixa
militantzia inaktiboa
da mende hontako gaitza.

**A. Rekondo**
Kanpamendutan igarotako
negu gorri ta barauek
askok diote zeozertako
balio al dute hauek?
Entzungor egin izan digute
agintari ta enparauek
baina zeozer aldatze al dute
herriko betiko lauek?

**A. Sarriegi**
Nik uste garbi antza buruan
izan behar zituenak
nahiko nahasturik ez ote dauzkan
barruko bere eskemak.
Hemen, Andoni, guztiak behar
ditugu ta ez gehienak
egiten diren apurrak eta
egiteko dauden denak.

**A. Rekondo**
Ta egiteko zenbat dagoen
ia zail da sinistea
nahiz ta bilketa neretzako den
apurra ta alpistea
tokatzen zaigu modu hontara
gure jarduna ixtea
gu ere xextran hastea ez al da
Aitor bastante tristea?

# MENDARO

2025-03-14

**Bertsolariak**
Julio Soto, Joanes Illarregi, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto
**Gai-emailea**
Ainhoa Urbieta

Motxaila elkarteak antolatuta 90 lagun bildu dira Kultur Etxean, ostiral iluntzez.

**J. Soto**

Gaia: Orain mutil gazte dotore eta lerdena bazara ere, nola irudikatzen duzu zure zahartzaroa?

Neurria: Hamabiko txikia
Doinua: *Kantuz egin behar dut*

Zer gertatuko zaizun
ezin da igarri
baina oraindik nago
bizitza egarri
hogeita hamazazpi
kandela pozgarri
eta gehiago ere
baletoz pizgarri!
Ni ere zahartuko naiz
gaur ez baino sarri
baina oraindik ez naiz
pentsatzera jarri.

Hilezkorrik ez baita
bat jaio sekulan
zahartzaroa guztiok
hor dugu brujulan
ni ere pausoz pauso
nire abenturan
urte betetzen noa
gehiagoren guran
eta nagoenean
laurogeien mugan
ez dakit nork zaindua
edukiko dudan.

Baina jaio bezela
hilko naiz biluzi
sortzez ekarri nitun
hezurrok ta guzi
zahartzaroa ez dut nahi
baztarrean utzi
ze irudi hori gaur
didazu erakutsi
kafe eta pasio
ta bastoiai eutsi…
Ai hori egingo banu
ez litzake gutxi!




Neguko bertso barnetegia. Gautegiz Arteaga. 2025-02-22. XDZ

# ATAUN

2025-03-28

**Bertsolariak**
Eneko Araiztegi *Korta*, Naia Arrizabalaga, Mikel Etxezarreta, Aratz Igartzabal *Potto*, Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia
**Gai-emailea**
Aitzol Barandiaran

Ataungo Herri Antzokian izan da saioa, Sarek eta Etxerat-ek antolatua.

**A. Igartzabal**

Gaia: Badira esaldi mota batzuk, askotan entzun arren mingarri izaten direnak: “Hezur eta azal hago motel!”, “Kilo batzuk galduta guapago egongo zinateke”, “Zaintzen hasi beharko duzu ba”, “Pena! Aurpegiz polita da ba!” eta horrelakoak. Zuk sumatu duzu zure inguruan horrelako komentarioak ugaritzen ari direla; mundu erdiak duela beste erdiaren gorputzez iritzi bat eta hura emateko beharra gainera. Orain arte isilik entzun dituzu horrelako komentario guztiak, baina aspertu zara; gaur erantzun egingo diezu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Ai gure antzinako*



“Kilotan gora hoa
bizimodun truke!” (bis)
komentario holako
beste hainbat kutre
ta horiek barruan
lanen dihardute
sarri kaso ingo nien
ez al dezu uste?
Ez dakidan zeoze
esango balute. (bis)

Sarri hartzen diogu
besteari kargu (bis)
mundu erdiak ia
horretan dihardu
ta ez dakigu nola
ote gean bihar gu
sarri isiltzea da
hobea seguru
komentario horrek
aldatzen ez badu. (bis)

Berrogei kendu ditut
nik azken etapan (bis)
alde earreko indarra
dabilkit hankatan
eta hauspoa ez zait
berotzen aldapan
nola ni gaur ez nagon
esperientzi faltan
norbera sartu bedi
norbere prakatan. (bis)


Entzuleak Arabako Bertso Kuadrilla Artekoan. Narbaxa. 2025-02-28. XDZ

**E. Araiztegi – N. Arrizabalaga - M. Etxezarreta -A. Igartzabal - I. Urdangarin - I. Zubeldia**

Gaia: Eneko Aita Santua da. Esan dutenez Vatikanon denetik probatu dute zu sendatzeko, munduko mediku ta tratamendu mota guztiak. Antza denez ez dute emaitzarik eman. Azken saiakera egiteko azken bost petrikiloak ekarri dituzte; metodo kuriosoak omen dituzte baina munduko onenak omen dira. Bakoitzak konta dezala nola sendatuko lukeen Aita Santua.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

**N. Arrizabalaga**
Zu gaixo ta herria
omen da penetan
elizak husten ari
ziren ja urteetan
baina ikusi zaituzte
egoera honetan
nola sendagarriak
maiz dauden hitzetan
jendetza omen doa
elizara bueltan.

**E. Araiztegi**
Antza eliza dabil
ja jendekin biltzen
gure Pablo onenen
ez baita aurkitzen
azkoitiar bat dator
hasi zait serbitzen
honen hitzetan ia
aspaldi hil nintzen
baina aizu belar txarra
hain errez ez da hiltzen.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

**M. Etxezarreta**
Albaiteroa naiz ikasketaz
nahiko nizuke argitu
bizitza hontan ein ditut hainbat
mirari eta delitu
badaukat botika bat
akabo zure trabak
orratz honek ze ukitu
ia hilean dauden behiak 'e
honek zutik jartzen ditu! (bis)

**E. Araiztegi**
Ja ez zegon ba zutitzerikan
nere moduko biga ja
botikarekin etorri zaigu
ta hor eman du epaia
badakit honen berri
herria Olaberri
da esateko garaia
botikak utzi ta ekarri'dak
behingoaz hire gaztaia. (bis)

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Ai gure antzinako*

**A. Igartzabal**
Kalentura haundikin
kopeta izardiz blai (bis)
hiltzeko ordua heldu
ta hala 're esnai
botika handirik gabe
naiz sendatzeko gai
hamabitan mahaira
jana atera ai!
Elizgizona bada
azalduko da bai. (bis)

**E. Araiztegi**
Beraz bete itzazu
zuk silla eta mahai (bis)
jarri urdai azpiko
txoixo eta urdai
horrela gobernatzen
bainaiz aste ta jai
nahiz ta ospitalean
ez nagoen alai
antza Jainkoak ere
ez nau ondoan nahi. (bis)



Neurria: *Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz*
Doinua: *Iparragirre abila dela*

**I. Urdangarin**
Be' izena 're ahaztu egin du
gizarajoak ze kasu
ur beinkatuan bainatu zaitez
gurutzeai eman musu
edan 'zazu ardoa
pixka bat ez, mordoa
ta puruari eman su
sendatu ez baino azken egunak
ondo pasako dituzu. (bis)

**E. Araiztegi**
Beraz Ataungo aguazilak
ni ikusi nau goibela
izena bai, bai, baina izana
nik ez det ahaztuko bela
ekarri 'zak purue
exito segurue
izango degu horrela
baina jakizu azken egunak
oraindik urrun daudela. (bis)

**I. Zubeldia**
Botila beten eman dizkiot
jarabea ta jalea
ohian ondoan ia karkaxaz
beteta dauke baldea
hasten danen eztulka
saioa noizko buka!
Belaunek 'e zabalea
hau sendatzeko onenak die
atxurre eta palea. (bis)

**E. Araiztegi**
Antza kolpetik kenduko dizkit
eztula eta herrena
ze soluzio zoragarria
alkateak dakarrena
eiten bada castinga[3]
hor dago gizon fina
mundun dagon alperrena!
Ni hilko nauk ta nere tokian
jarriko haute hurrena. (bis)

---

3. "Kastiña" ahoskatu du.

# ITSASU

2025-03-30

**Bertsolariak**
Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal
**Gai-emailea**
Ortzi Idoate

Aitor Sarasua bertsopaper sariketaren karietara Bertsularien Lagunak Elkarteak antolatutako bertso-bazkaria. Saritutako sortak entzun ondotik ekin diote kantuari bi bertsolariek, librean lehenik eta gaien arabera ondotik.

**U. Alberdi – N. Ibarzabal**

Gai librean.

Neurria: Lau puntuko txikia
Airea: *Sarasua da gure*



**N. Ibarzabal**
Gazteagoak ere baditugu bertan
nagusitu direnak gaurko sariketan
salto eginez gure iraganan bueltan
zuk bertsorik idazten al zendun umetan?

**U. Alberdi**
Gazterik hasi nintzen paperak narrasten
oso txarra nintzenez jokoan, marrazten
ai bertso paperetan gazteenetan gazteen!
Nik umetan ez nuen besterik idazten.

**N. Ibarzabal**
Boligrafoa hartu eta apuntatu
errimak errimekin elkarri juntatu
lehenago Ekhik ere hoixe du kontatu
gustatu egin zitzaigun ta hementxe geratu.

**U. Alberdi**
Ta gure sekretu ta gure pekatuen
memoriak nolako oharrak dituen
behin maitemindu nintzen mutil bat gertuen...
Sei puntuko habanerak idatzi nituen.

**N. Ibarzabal**
Bastante berezia orduan mutila
sei puntuko habanerak behar du abila
sentimenduak igual zeneuzkan bi mila
eta nola izan zen horren *segidilla*?

**U. Alberdi**
Badakizu bihotzen argi ta ilunak
berrogei urterako dira ezagunak
abisu bat zekarren bertsoen jardunak
bi puntu zeuzkan sobran nire maitasunak.

**N. Ibarzabal**
Zaila baita bilatzen sarri hitz zuzena
nola konkistatu orain zuk maitatuena?
Orain bertso txar batek ematen du pena
hau da oparituko nukeen azkena.

**U. Alberdi**
Ba orain jarriko naiz ni bigun planean
berdin da furgonetan edota trenean
pareja ta ni ez gaude agian senean
puntutan eiten dugu pozik gaudenean.

**N. Ibarzabal**
Bikote xelebrea dugu garaiz garai
furgonetan kantuan joaten dena alai
neuk ere nahi izan dut ta eskatu diot bai
baina hasten naizenean ez du segitu nahi.

**U. Alberdi**
Izan bikote baten hainbat sentimendu
kantua jartzen bada igual penak kendu
ai baina zure bide hau nola zuzendu?
Badakizu txapelak kalte egiten du.

**N. Ibarzabal**
Botere harreman bat al da txapelketa?
Bat goian baldin bada bestea erreta
desafinatu ohi du nireak tarteka
denon senarra ez da Eñaut Elorrieta.

**U. Alberdi**
Hementxe hasi gara intimoen sokan
ta jendea urduri gure azken notan
ai zure hori ere gaueko borrokan
behinola entzun nuen xaguei bertsotan.

**N. Ibarzabal**
Etxean badauzkagu ehun xagu inguru
bertsotan eiten dugu sarri buruz buru
baina gai hobeekin hemen Ortzi dugu
bestela sekretuak esango ditugu.




Emakumeen Nazioarteko Eguna. Bera. 2025-03-08. XDZ

# OIARTZUN

2025-03-30

**Bertsolariak**
Amets Arzallus, Miren Artetxe eta Alaia Martin
**Gai-emailea**
Ainhoa Urien

*Literatura plaz(a/e)ra* jardunaldien baitako saioa egin da Landetxe Kulturgunean, 1545 argitaletxeak antolatuta. Bertsolariez gain, Bastien Marianne eta Patxi Amulet musikariak aritu dira.

**A. Martin**

Gaia: Orainaldian eta norberarengan zentratuko gara. Alaia, badakizu genealogia pertsonalek badutela kolektibotik eta alderantziz. Ezin gaurko zu, atzoko zu gabe ulertu. Noraino luzatzen dira zure sustraiak eta zu nola iritsi zara orain zauden lekuraino?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Agur Jesusen ama*



Sekula ez naiz ibili
bare, lasai, trankil
beti nigan ateak
sarrail ta maratil
beti intentsitatez
beti bizi ta hil
hargatik esaten dut
nagon partez nabil. (bis)

Bizitzak bere pausu
oholde ta zipriztin
bere erdigune, zentro
bere ertz ta iskin
batzuetan min dena
batzuetan da min
ta nabilelako maiz
ibili naiz zikin. (bis)

Nola iritsi naizen?
Nola? Baina nora?
Oharkabe pasa zait
bizitza, denbora
ta hola iritsi naiz
joan nahirik kanpora
Sorbaldak altxatzea
da zure ustea
ta nik erabaki dut
burua jeistea. ( bis)

**E. Pagola**
Hori al da zuretzat
hankean tiroa?
Begira nazakezu
begitan igoa
maitatu izan nuen
zu eta giroa
baina ezer ez degu
definitiboa. ( bis)

**S. Colina**
Zentzatu zaitez Eli
mesedez, mesedez
ez nazazun baztertu
kleenex[11] zahar bat legez
definitiboa deus
ez badegu berez
bada ziurtasun ta
zalantzak ere ez. ( bis)

**E. Pagola**
Berriz hain anbiguo
ez zaitez etorri
inoiz ez baita gauza
onik eratorri
zaintzeko hor dauzkagu
hiru umezorri
ziurtasun bezela
heldu 'iozu horri. ( bis)

**S. Colina**
Beraz bukatu dira
gure fantasiak
desertu itxura hartu
baitu oasiak
bai hiru haur dauzkagu
negarrez hasiak
zalantzaz sortuak ta
seguru haziak. ( bis)

11. "Klinex" ahoskatu du.

# ALEGIA

2025-07-19

**Bertsolariak**
Xabat Illarregi, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Unai Iturriaga
**Gai-emailea**
Iker Iriarte

**N. Ibarzabal**

Gaia: Aspaldi ikusi gabeko lagun batek esan zidan: "Berriro ere libre, bikote harremanik gabe". Zer pentsatua eman zidan, eta zuri galdetuko dizut: bikote harreman batean posible al da libre izatea?

Neurria: Lau puntuko berdina, 8 silabaz
Doinua: *Berdindu nahi nituenez*



Behin betirako muxua
behatzean eraztuna
kaiola ederren forman (bis)
saltzen dute maitasuna.

Batasun bat egon leike
horko pertsona bietan
ta ez soilik kandatuak (bis)
Veneziko zubietan.

Eten duzu harremana
berriz gurtuko kuadrilla
libre zabiltza parrandan (bis)
baina beste baten bila.

Nahiago kontzeptu hori
izatea apartean
berotasuna ta haizea (bis)
bi pertsonen bitartean.

Ze nik neuk nahiago nuke
besteak utzi nazala
beti ikusiko banau (bis)
polizia bat bezala.

Nik nahi dudan horrexekin
egin berba, egin dantzan
askatasuna eraikitzen (bis)
da ondoen konfiantzan.



Real Sociedad Fundazioaren eguna. Donostia. 2025-06-08. XDZ. Real Sociedad Fundazioa

# ARANO

2025-07-25

**Bertsolariak**
Nerea Ibarzabal, Julio Soto, Andoni Rekondo eta Aitor Mendiluze
**Gai-emailea**
Aritz Zerain

Aranoko festen karietara Jai Batzordeak antolatutako saioa, frontoian.

**N. Ibarzabal - J. Soto – A. Rekondo – A. Mendiluze**

Gaia: Taldeko gazteena zara, Andoni, baina bazoaz zahartzen. Besteak zahartzen ari direla ikustea errazagoa da norbera zahartzen doala ikustea baino. Beste hirurak zahartzen ari direla ohartuta zaude, izan liteke fisikoki askotan ikusten ez dituzulako edo… Konta ezazu zergatik ikusten dituzun zahartzen. Eta besteok esan ezazue nola ikusten duzuen zuen burua.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

**A. Rekondo**
Edadeana kolpe latza da
ez al dezute nabari?
Bestela denok jarri zaitezte
ixkina hontara adi
Aitor badoa behera
ai! Posible ote da?
Nahiz eta ari den ari
ehun da hamar plaza eitten zittun lehen
orain bakarrik ehun da bi. (bis)

**A. Mendiluze**
Hori ona edo txarra ote den
pentsatu behar zenuke
egia da bai hainbat plazatik
hots egin izan digute
lehen ehun da hamar pasa
ta zeuk 'e zeure kasa
berdin nahi zenduke zuk'e
falta zaizkizu laurogei plaza
eta hogeita hamar urte. (bis)

**A. Rekondo**
Nereak uaindik hori-horia
nahiz ta daukan ilajea
urteen joanean pixka't okertu
egin zaio musajea
zeren ta lehen parrandan
zebilen goiko langan
zer nolako biajea!
Ustekabean iritsi zaio
lau eguneko ajea. (bis)

**N. Ibarzabal**
Joe! Ze pena! Ez ote nago
horren itxura gazteko?
Arrazoi duzu hamaika aje
izaten ditut asteko
berrogeirik ez daukat
hogetamarren maukak
badira zahar antzeko
ta igual gehiegi parrandarako
drogak probatzen hasteko. (bis)

**A. Rekondo**
Zahartzaroa suma liteke
ilea dela medio
lehenik urdintzen hasten da eta
gerora dator erio.
Julio gaur ezagutu
ta ez det nahi egurtu
nahiz zahartzen doan redio
tabernatikan hona bidean
lau kana irten zaizkio! (bis)

**J. Soto**
Kontserbatzen naiz hain elegante
bizi naizela suerteko
baino ahal dela besteei hainbeste
inbidi ez izateko
alperrikan zabiltza
jan 'zazu beraz hitza
nago itxura gazteko
kanak propio pintatzen ditut
zaharragoa emateko. (bis)

# ALTZO

2025-08-02

**Bertsolariak**
Alaia Martin, Amets Arzallus, Julio Soto, Maialen Lujanbio, Aroa Arrizubieta eta Jone Uria
**Gai-emailea**
Pello Olano

Aurten ere 350 lagun bildu dira San Inaziotako saioan herriko eskolako aterpean.

**J. Soto – A. Arrizubieta – A. Arzallus**
Gaia: Amets, aitona eta Aroa, amona Beste askotan bezala, Julio iloba txikia zaintzen utzi dituzte aitona-amonak. Jolasean dabiltzala baloia zuhaitz batean trabatuta geratu zaie. Geroztik ez da bakerik etxean. Iloba petralduta erreguka ari zaie baloia zuhaitzetik behera bota dezaten. Aitona-amonek dagoeneko ez dakite zer egin. Zuhaitz azpian jarri dituzte eskailera, soka, erratza…

Neurria: Lauko handia
Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*



**A. Arzallus**
Iloba txikia deitzen zaio
ta aittona dago lasai
onena da hementxe egotea
iloba noiz haziko zai.

**J. Soto**
Eurokopako baloia juxtu eta
ta enkalatu behar neri
katastrofea bat pasa baino lehen
deitu suhiltzaileeri.

**A. Arrizubieta**
Txapa ematen jarraitu behar
ote dezu zuk jo ta ke
gure buruek ere baloian
forma hartzen duten arte?
.
**A. Arzallus**
Bota makila ta bota hortzak
antiojuak lekuko
aittonari botatzeko ez zaio
ia ezer geratuko.

**J. Soto**
Baloia jeisten ez baduzue
adar horretatik mantso
letxe earrean jarriko dira
aitatxo eta amatxo.

**A. Arrizubieta**
Ulertu ez 'zazu ez gaudela
inoiz bilobaren kontra
baina hobe dugu barrura sartu
ta zuk jarraitu saltoka.

**A. Arzallus**
Pase bat eman behar zidan hola
eta horra joan zaio ihesi
aittona ez zala Maradona
iloba ere ez da Messi.

**J. Soto**
Ideia bikain bat etorri zait
bate ez duna ziritik
motosierra bada estalpean
bota arbola ipurditik.

**A. Arrizubieta**
Zu amonarengana hurbiltzen
naiz ta ibiltzen zaren maiz
zuek ez bazarete iristen
ni nola iritsiko naiz?

**A. Arzallus**
Zu jarri nire sorbaldan eta
zuk hartu iloba okerra
goiko baloira iritsi arte
eingo degu castellerra.

**J. Soto**
Mundua haurrentzat ze injustua
nik ez dut bate gustoko
baloia jeisten ez baduzue
afarik ez da geroko.

**A. Arrizubieta**
Edo aitona bota daiteke
baldin badugu tartea
zuk baloia ta nik senarrik ez
begira a ze pakea!

**A. Arzallus**
Amonaren ahotik nik hori
entzun izan det askotan
baloian bila neu joaten banaiz
hor geldituko naiz lotan.

**J. Soto**
Parkera zoazten hurrengoan
hemen baloirik ez dago
ta ni zuen biloba naizenik
ja ez 'zazue esan gehiago.

**A. Arrizubieta**
Bueno jadanik bi orduz edo
tabarra emanez darama
joan gaitezke tinbrea entzun dut
badatoz aita ta ama.

# OIARTZUN

2025-08-05

**Bertsolariak**
Maialen Lujanbio, Oihana Arana, Unai Iturriaga eta Igor Elortza
**Gai-emailea**
Amaia Agirre

Bertso saioa antolatu du Martzelina Bertso Eskolak, herriko festak direla medio. Txosna gunean izan da saioa, eguerdian.

**M. Lujanbio – U. Iturriaga**

Gaia: Atzo baserritar eguna izan zen eta ekitaldi jendetsuena idi-dema izan zen. Lehenengo txanda goizeko 10:00etan, hilerri ondoko plazan. Oiartzungo harriari tiraka bi idi pare, harriak ia 2.000 kilo, eta zuek biak han. Zu Maialen idizale amorratua, hutsik egin gabe hurbiltzen dena, eta gaur ere egingo duzu egundoko apustua. Eta zu ere Unai plazan zaude, pankarta bat eskuan eta animalien aldeko aldarriak ahoan. Eta elkarren parean zaudete idi-demak noiz hasiko, zeinek zeini begirada zorrotzagoa luzatuz.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

**M. Lujanbio**
Pankarta eskuetan
ta hortxe darraizu
bertan egon zintezke
aste eta jai zu
hemen neoruralak
asko gara aizu
idi-dema kentzea
kosta behar zaizu. (bis)

**U. Iturriaga**
Orain dela ehun urte
ta geunden moduan
ze mundu daukazu zuk
baina akorduan?
Har 'zazu harria zeuk
ta lotu buruan
apustu gustura neuk
eingo dut orduan! (bis)

**M. Lujanbio**
Pertsona ta piztia
ez da iguala
idiak bai oraintxe
ehun urte bezala
Perurena, Ergoien
ta Gurutze hala
uste al dezu Oiartzun
Donostia dala? (bis)

**U. Iturriaga**
Beraz zuri iruditzen
zaizu hain normala
piztia hor sufritzen
pertsonak bezala
dena hain bertakoa
dena naturala
uste al duzu idia
oiartzuarra dala? (bis)

**M. Lujanbio**
Oiartzuarrak dira
jabe ta ganadu
ta azken bost urteetan
saiotan dihardu
beira dagon jendeaz
egin zaite kargu
hemen bakoitzak bere
sufrimendua du. (bis)

**U. Iturriaga**
Bai ta biharamuna
ta jai ta bezpera
apustu egingo duzu
berriro ostera
ezin al duzu izan
normala ospera!
Besteak bezala joan
Reala ikustera. (bis)

**M. Lujanbio**
Anoeta ezin da
hau bezela bete
nahiz han baduten nahiko
miloi eta txeke.
Pozik eingo nitzake
futboleko jente
haiei ere akuilua
sartu baliete! (bis)

**U. Iturriaga**
Ahokada bat bota
puruari tira
akuiluari begitu
ta soa harrira.
Ezin dugu ados jarri
gu biok argi da
ni ez nauzu lotuko
zure uztarrira. (bis)

**I. Elortza**

Gaia: Abuztuko lehen igandea da, Lekeitioko hondartzan eguzkia hartzen ari zara zure oporretan. Irlandatik etorritako turista bat zara, eta bat-batean jende multzo handi bat jarri da, bata bestearen aldamenean, esku artean kartel bana dutela. *Behin betiko txanpa etxera* dio kartelak. Sarek Euskal Herriko hamaika hondartzatan antolaturiko mobilizazioetako bat da. Bozgorailuetatik hizlari batek hala esan du: "Behar eta merezi dugulako, behin betiko txanpa etxera, behin betiko euskal preso, iheslari eta deportatuak etxera!". Eta toalla gainean etzanda zaudela burua martxan jarri zaizu.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Itsasoaren bista ikusiz
lasaiago nengoen lehen
bat-batean hor azaldu dira
pankarta, oihu ta kemen
esanaz nola oraindik ehundik
gora euskaldun preso dauden
itxura denez gauza gehiegi
ez dira aldatu hemen
gaur hogei urte etorri nintzen
ta orduan ere hor zeuden. (bis)

Irlandan ere bizi izan dugu
ta buruz harantz goazen
han akordio bat egin gendun
oraindik gabiltz zarratzen
ta hemen berriz kontuak egin
ziren oker ala zuzen?
Hoixe pentsatzen nago kartela
daukatenei begiratzen
gerra galtzea baita kulpa bat
ez dena inoiz barkatzen. (bis)

Eta ni hemen neure toalla
krema, sonbrilla ta jira
oporretara heldu naiz baina
ezin dena izan biba
hor doaz euren pauso motelez
banderei tira ta tira
nik haiekin bat egin behar dut
ta eurekin joan herrira
hau dena ez da konponduko ta
itsasoari begira. (bis)





Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Arantza. 2025-06-14. XDZ.

# GASTEIZ

2025-08-07

**Bertsolariak**
Oihana Iguaran, Peru Abarrategi, Eli Zaldua eta Beñat Gaztelumendi
**Gai-emailea**
Etxahun Otaño

Gasteizko jaietan gaur ere egin dute bertso saioa eguerdiko bero sapan. 150 lagun inguratu dira Aihotz plazara.

**B. Gaztelumendi**

Gaia: Kale saltzailea, *manteroa*, zaitugu. Gasteizko kaleetan ari zara lanean baina azken atxiloketak direla eta kezkatuta zaude.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Amodioa gauza tristea*





Egunkariak ikusi ditut
Arriagako atean
munizipalak manteroekin
bortxaz eta jo ta kean
Bilbon pasatu dena pasatu
liteke edozein partean
errugabeak hala tratatzen
gara tartean-tartean
lapur haundiak kaleetan lasai
ari diren bitartean.

Berdin diskoak, berdin pultserak
milaka produktu klase
behar duenik baldin balego
salduko nion belaxe
nahiz ta beroa eta euria
kalean izan oinaze
soilik nahi badut sakelak bete
edota sabela ase
zergaitik hartzen ote gaituzte
gaizkileak bezalaxe?

Esan didate Europa dena
ipini dela antzeko
eskubideen bilakaera
beti aurrekoz atzeko
Osakidetza edo jardinak
hainbat gauza konpontzeko
agintariek ordea beren
errespetuak ontzeko
pagaburuak behar gaituzte
kulpa guri botatzeko.

Hala 're dena ezin dugunez
hain su bajuan egosi
nahiz eta batzuk nahi liguketen
errua guri egotzi
berdin oinezko zein kulturzale
gazte edo zinegotzi
bizimodua ateratzeko
ametsa ezin da ehortzi
beraz etorri guregana ta
ahal duzuena erosi.

# HONDARRIBIA

2025-08-30

**Bertsolariak**
Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Jone Uria eta Unai Iturriaga
**Gai-emailea**
Karlos Aizpurua

Festen aurreko urteroko saioa antolatu du Hondarribiako Udalak, Santiago plaza mukuru bete da.

**J. Uria – O. Iguaran**

Gaia: Ama-alabak zarete; Jone ama eta Oihana alaba nerabea. Herriko festak dira eta biak atera zarete festa egitera. Alaba goizeko ordu txikietan etxeratzerakoan, etxe atariko atea ireki eta hara non topatu duen ama, aita ez den ezezagun batekin, gerritik helduta edo.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Behin batean Loiolan III*



**O. Iguaran**
Ni ongi ibil nendin
zenbiltzan temati
ta atera helduta
gogoa ebaki
ez da hizketa unea
zurea izaki
galdera bakarra det
aitak ba al daki? (bis)

**J. Uria**
Hementxe genbiltzala
gustora ta lasai
alaba goiztiarra
bilakatu etsai
aitak ba al dakien
galdetzen duzu ai!
Ba ez, ez daki ezer
ta ez du jakin nahi! (bis)

**O. Iguaran**
Hain moderno zinaten
nik baneukan duda
baina behin pasatuta
bikoteko muga
hor gerta litekeena
da zure ardura
nik ere ez nun jakin nahi
baina berandu da. (bis)

**J. Uria**
Hemen elkartu gara
atariz atari
alaba eta ama
maiz elkarri adi
marrak ez omen dira
jarri behar argi
ikasi diot zure
belaunaldiari. (bis)

**O. Iguaran**
Ordun gustuko dezu
gure perspektiba
nere belaunaldiai
bazabiltz begira
gauza intimo hauek
jode! Ama, tira…
Besteen portaletan
egin behar dira. (bis)

**J. Uria**
Besteen portaletan
arrotza zeharo
orduan negoziatzen
zurekin luzaro
eta zurekin ere
harrituta nago
zein bueltatzen da ordua
baino lehenago? (bis)

**O. Iguaran**
Behin ordua betetzen
ta txintxo ausartu
ta jakin nahi ez nuen
honetaz ohartu
ama zu libre zera
bidea hautatu
baino ni ez nazazu
zure draman sartu. (bis)

**J. Uria**
Beraz nahiko zenuke
hontatik aparte
nahastu baitizkizut
gogo ta aldarte
baina berdin histori
ta berdin pasarte
beti izango gara
geure dramen parte. (bis)

## J. Uria

Gaia: Hondarribiko festetara ere iritsi zara. San Pedro kaleko bide bazterrean jarri zara, zure tapiza edo manta zabaldu, eta poliki-poliki kamisetak, plaierak eta abarrak bertan kokatzen zabiltza. Baina aldi berean, eskuin, ezker eta urrunera begiratzen duzu, so urduri batez.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

Kontinenteen artean
noizbait egin zen aldea
niri tokatu zitzaidan
lastoaren galbahea
gero honaino etorri
ta hemen bazen sarea
kalean horrela saltzen
ibiltzen gara taldea
dena zabaldu eta prest
parean daukat kalea
ta hemen nago eskuin, ezker
behera eta gora beha
polizi asko baitago
uniformerik gabea. (bis)

Lehen ere jaso dugu
herritan zenbait jazarpen
jendea poliziari
hau eta beste esaten
lanak egin behar ditut
nonbaiten onar nazaten
ta Hondarribira ere
iritsi halako baten.
Herri honez entzun nuen
ez dakit zenbat azalpen
ze itxura polit eta
ederra izan dezakeen
ta klaro, gu postal baten
ez dugu ondo ematen! (bis)

Horrela ibiltzen gara
han, hara eta hona buelta
egun gogorren bat eta
ederren batzuk tarteka
hala ere egin behar
inguruan azterketa
nork egin digun kalte
zeinek bakarrik iseka
ta gaur Hondarribikoa
ez da izan lasterketa
hala ere pozik noa
etxera erdi aseta
saldu baititut bi jertse
ta Nikoren kamiseta[12]. (bis)

12. Niko Williamsi buruz aritu dira arestiko bertsoaldi batean.



## O. Iguaran

Gaia: Alberto Lasarentzat izan da Hondarribiko urrezko intsignia. Zorionak Alberto! Harekin batera Sorotan Bele taldea eta Maria Jesus Berrotaran izan dira finalistak. 75 urteko hondarribiarra da Maria Jesus, Hondarribiko bertso eskolaren sortzaileetako bat dela esateaz gain, gauza asko esan daitezke berari buruz, baina pasadizu bat besterik ez dizut kontatuko. 1979an Hondarribiko udaltzain izateko deialdira aurkeztu zen, eta emakumea izanik izena ere ez ziotela hartuko esan zioten. 1980ko deialdira ere aurkeztu zen, eta izena hartuko ziotela baina emakumea izanik ez ziotela deituko esan zioten. 1980ko bigarren deialdira ere aurkeztu zen eta hartu egin zuten; jubilatu arteko 35 urteak pasa zituen lan horretan. Oihana, gaurko entzuleen artean dago Maria Jesus, zer esan nahi diozu?

Neurria: Hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Gaur udaberri bat dabil*

Zergatik ez zara gure
genealogiaren parte?
Anekdotak gugan nolaz
ez du behar beste tarte?
Akaso ezagutzeak
jarraipenen bat lekarke
ta oraindik emakumeak
nahi lituzkete aparte
zuk udalean agertu
zenuen behin han jo ta ke
atea jo behar dela
pitzatzen hasten den arte. (bis)

Ta anekdota hori da
bakarrik adibidea
zu ez ezagutzearen
pena da aldiz nirea
zein da urrezko domina
horrentzat irizpidea?
Noren aldeko behar du?
Ta noren adiskidea?
Zuk posible egin zendun
lehen ez zena posiblea
ta zuri esker zabalik
geratu zaigu bidea. (bis)

Zuri esker bide puska
txiki bat nahiz den egina
oraindik zenbait esparruk
sortzen dutenez ezina
oraindik denon oinpeko
lurra ez baita berdina
herrira zabalik nahi dut
zure seten eragina
ta txaloka eskertzeko
kapaz izango bagina
jaso 'zazu esker onez
saio hontatik domina[13]. (bis)

13. Oihanari ez ezik, publikoan den Maria Jesus Berrotarani ere txalo zaparrada luze bat eskaini diete zaleek, zutik jarrita.

# PLENTZIA

2025-09-01

**Bertsolariak**
Nerea Ibarzabal, Sustrai Colina, Oihana Iguaran eta Igor Elortza
**Gai-emailea**
Erlantz Ibargurengoitia

San Antolin jaien baitako saioa, Plentzia-Gorliz-Lemoizko Bertso Eskolak antolatua, Plentziako Jai Batzordearen laguntzaz.

**S. Colina**

Gaia: Hedabideek bizirik irauteko bi mundu dituzte: harpidetzak eta dirulaguntzak, gehienbat. Euskal Herrian hedabideek jasotako dirulaguntzek adierazten dute gobernuen interesa zein den. Zenbakiak argiak dira eta publikoak: El Correo, 9.237.603 euro; El Diario Vasco, 6.128.575 euro; Cadena Ser, 5.948.760 euro; Deia, 3.605.626 euro. Gara, 2.969.963 euro. Erdarazkoak zenbaki puztuak. Euskarazko hedabideek ere jasotzen dituzte dirulaguntzak: Argia, 144.970 euro; Berria, 1.802.760 euro; Bilbo Hiria Irratia, 0 euro.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Lili bat ikusi dut I* eta *Urzo xuri pollit bat A* aldizkatuz.



Errealitatea
bertatik bertara
lehertzen zaizunean
bi begietara
zenbakiak entzunda
bai, ironia da
diskriminatzaileak
euskaldunak gara.

Ta erdaldunek berriz
patrika betea
horixe da eurentzat
dagoen suertea
konturatzen ari naiz
nahiz jasan nekea
euskera dela oso
hizkuntza merkea.

Aposturik ez dago
guregan hain zuzen
ez omen dute gero
hala ezagutzen
ta esaten digute
hutsenetan hutsen
"Ez zaituzte entzuten
eta irakurtzen".

Zer nahi duzue? Hau da
betiko ostikada
lurrean bueltan-bueltan
min hartzeko jada
ez, ez gaituzte hil nahi
bistan dago hara
hemen demokrazia
hiltzen uztea da.

Baina entzule pentsau
izan dut nik usu
zuk ere botereak
zugan baitituzu
ze alderdi politikok
tiratzen zaitu zu?
Zer irakurtzen eta
zer entzuten duzu?

Telebista ez dabil
hortik apartean
behintzat sar dezakegu
gaurko debatean
ETB2 daukate
eskaparatean
ta dibujotxo batzuk
ETB1ean.

Azken sententzia da
honekin akabo
dagoeneko ez dut
esango gehiago
egiten digutena
gaizki dago, klaro
baina hori iraultzea
gure esku dago.

# MARKINA-XEMEIN

2025-09-12

**Bertsolariak**
Nerea Ibarzabal eta Josune Aramendi
**Gai-emailea**
Mikel Ansola

Organoaren musikarekin aritu dira bertsotan Xemeingo elizan. Ekitaldia *Musika Haizeak 2025* programazioaren barruan antolatu da eta organo-jotzaileak, Carlos Fernández Bollo, Johannes Friederich eta Juraj Kremen izan dira. Bertsolariek aldarean abestu dute eta alboan pantaila handi bat organojoleen irudiekin. Bostak aritu dira inprobisazio lanetan; bi bertsolariak eta hiru organistak.

**N. Ibarzabal – J. Aramendi**

Gaia: Ama beti egon da gure artean. Bere ahotsa izan zen lehen entzun genuena. Haren berotasuna lehen babesa. Urtez-urte hezi gintuen, beldurrik gabe maitatuz, isilik, tinko. Denborak ordea, bere aztarnak utzi zituen. Eta ni urrunean bizi nintzela, pixkanaka ikusi nuen nola itzaltzen zen haren argia. Azken aldietan ondoan egon nintzen, baina egun batean agur esan behar izan nion eta bihotzean kolore biziak itzaltzen sentituta itzuli nintzen eguneroko huts batera. Gaur agurra bihurtu zait otoitz eta esker oneko hitz ixil. Ez baitut bizitzan, ama baino gehiago zor diodan inor. Zer geratzen da ama joan eta gero, egunerokoan? Zertan bihurtzen da esker ona berari ezin entzunarazita?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Agur Jesusen ama*

**N. Ibarzabal**
Behin amaren bularra
horren emankorra
indar bat gainditzeko
bizitza gogorra
ta agurraren unea
iristean horra
nola itzul daiteke
horrelako zorra? (bis)

**J. Aramendi**
Heriotza onartzen
hain zaila da berez
baina amagan hartzen
dugu luzaz babes
ta haren irakaspenak
iraultza ta amets
pertsonak hiltzen dira
emandakoa ez. (bis)

**J. Aramendi**
Ama bat da altzoa
ama da estalpe
parez pare zabalik
ditugun bi ate
amaigabeko mimo
eta borondate
ama bat hilezkorra
izan behar litzake. (bis)

**N. Ibarzabal**
Gugan gelditzen dira
hitzak ta ametsak
besarkadak, musuak
ta gelako ertzak
amaz gogoratzea
uneotan behintzat
etxera itzultzea
hoixe da niretzat. (bis)

**N. Ibarzabal**
Baina ezinezkoa
da dagoeneko
bizitza sortzen baita
noizbait amaitzeko
eta zilbor-hestea
hain estu lotzeko
hautsi egin behar da
berriz jaiotzeko. (bis)

**J. Aramendi**
Nahiz ta parean izan
haren hilobia
beti aurrerantz doa
bizitzan noria
ta ondaretik dator
gure historia
ta esker ona bihurtu
leike memoria. (bis)

# DONOSTIA

2025-09-13

**Bertsolariak**
Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Agin Laburu eta Maider Arregi
**Gai-emailea**
Imanol Artola *Felix*

Trinitate plazan, 300 lagunen aurrean aritu dira bertsolariak euskal jaien harira egiten den jaialdian.

Lehen puntua emanda

Gaia: Palestina

**A. Martin**

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Errota zahar maitea*



**Bi begiak jartzean**
**Gazara begira**
denok aldatzen dugu
gure perspektiba
tantaka aldatzen da
gezatik gazira
ta odolezko malkoak
ateratzen dira.

**Gosea erabiliz**
**orain arma gisa**
dena inpunitatez
ta denen geriza
genozidio bat da
lur zahar baten ehiza
ta efemeride bat
guztien bizitza.

**Ez nahastu kirola**
**eta politika**
ez nahastu bizitza ta
bizitzen etika
ez nahastu odoluste
protesta, kritika
mundua hau bihurtu da
mundu hipokrita.

**Itsasontziak doaz**
**laguntzaz beteta**
itxaropena euren
barkuko maleta
misil txiki bat hurbil
liteke tarteka
sutilki esateko
emateko buelta.

**Hitzak agortu arren**
**isildu ezina**
urrun ikusi arren
ez da atsegina
boikota egin behar da
ez soilik mitina
palestinarrena da
gu guztion mina.

**M. Lujanbio – A. Laburu**

Gaia: Agin autobusean sartu haiz. Bete samartuta zegok autobusa, baina bazegok leku bat libre eta bertan eseri haiz. Hurrengo geltokian, Maialen sartu duk autobusean. Adinean aurrera doan emakumea. Hire parera etorri duk Agin, eta hantxe jarri duk geldirik zutik, autobusean ohikoak diren zutabe horietako bati helduta. Orduan, adeitsu, altxa egin haiz Maialeni leku bat uzteko asmoz. Nabarmen ikusi duk nola beste aldera begiratu duen ez ikusiarena eginez.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Azienda bat dago*

**A. Laburu**
Edukazioan ni
nola naizen maisu
zuregana halaxe
hurbildu natzaizu
ez al nazu ikusi?
Aizu, señora aizu!
Edo bixta fallatzen
hasi ote zaizu?

**M. Lujanbio**
Billeterik ez dago
aspaldian behintzat
hor pasa behar dira
txartel baten ertzak
txartela galdua du
nere poltso beltzak
hau debalde ez al zan
pentsionistentzat?

**M. Lujanbio**
"Señora" esaten du
begiratuz hona
uste al dezu naizela
etxeko amona?
Edukazio da horri
esaten zaiona
baino gehiegizkoa
ere ez da ona.

**A. Laburu**
Lehenago ere esan
dizut aizu, aizu!
Edukazioz zuri
hurbildu natzaizu
ta txartela lurrera
botia jo ta su!
*Mugi* jartzen dulako
ukatzen al dezu?

**A. Laburu**
Edukazioa det
nik adinaren truk
ta hartu ditudanez
zahartzaroan zantzuk
orguilua haundia
nola daukazun zuk
eroitzian lurretik
altxako al zaitut?

**M. Lujanbio**
Ai ume mukizuak
zenbat jakinduri!
Autobus honengatik
jarriko du *Mugi*
horko kurba ta obra
zulo eta zubi
Aieteko autobusak
rallya dirudi.

**M. Lujanbio**
Nik zentzuz egiten det
pausua ta hitza
ta autobusez ere
dotore gabiltza
jeiki dalako hartu det
disgusto bortitza
ta haserretuko nintzan
jeki ez balitza.

**A. Laburu**
Amona zaharrak oso
gutxi du gozotik
ta laister gutxiago
du hezur osotik
hontara entrenatu
dan arren atzotik
lasai heldu zaidazu
señora besotik.

**A. Laburu**
Autobusean degu
arazo sakona
nahiz eta hasi geran
txiste eta broma
hara txoferra ere
heldu baita hona
billeterik pagatu ez
dezula diona.

**M. Lujanbio**
Oain "Señora" esan dit
baino basta, basta!
Ume hau izango da
lotsagabe kasta
jeistera noa orain
iritsi naiz jasta!
Ta amona zaharra ez naiz
ama ere ez naiz ta.

# SARA

2025-09-17

**Bertsolariak**
Amets Arzallus eta Unax Aizpurua

Urteroko bertso-poteoa antolatu du besta komiteak, herriko bestak kari. Pleka trinketetik abiatu dira eta Arka ostatuan bururatu dute bertso ibilbidea bertsozale taldearen babesean.

**A. Arzallus – U. Aizpurua**
Gai librean.

Neurria: Lau puntuko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*



**A. Arzallus**
Ene Senpere utzi ta aireari kasu!
Gaiez alda dezagun ai Unax indartsu
ikusten zaitut nik hain gazte ta pindartsu
Saran bestetan zenbat besta egin duzu? (bis)

**U. Aizpurua**
Hoiek denak kontatzen a ze panorama!
Bestek ukana dute sekulako xarma
baina ezin dizut erran hortako dut lana…
Justu ondoan ditut aita eta ama! (bis)

**A. Arzallus**
Hara bide txarrera beraz nola noan
aingeru traza duzu begi ta ahoan
eta ikasle fina hain grina beroan
beraz plazan *Bulego* ta zu bulegoan! (bis)

**U. Aizpurua**
Bestak egiten pasaz hamalau bat urte
gurasoak hor ditut zenbat haundiuste
ez nintzake bizirik ez 'zazula uste
nola bukatu dudan jakingo balute! (bis)

**A. Arzallus**
Zenbat urte aipatu duzu bertsu hortan?
Hamalau urte Unax hazteko asmotan
beraz arratsalde hau doa bi pausotan
lehen ahate arrantzan ta orain bertsotan. (bis)

**U. Aizpurua**
Hamalau urte aipatuz guzien kaltera
ta eman didazunez eroan papera
ttiki-ttikia nintzen ta nintzen atera
hor Amets Arzallusen bertsoak entzutera. (bis)

**A. Arzallus**
Beraz ni entzuteko zu ahaleginean
Sarako plazan bazen segur ezinean.
hamar urte, zortzi urte buru arinean
nik ez nuen bertsurik zure adinean. (bis)

**U. Aizpurua**
Baina oino zirenez norbait oso fina
orain ikusi dugu zure ahalegina
nahiz ta hau entzuteak ematen dun mina
aspaldi pasa duzu bestako adina. (bis)

**A. Arzallus**
Berriz ere hasi da tiroen afera
Unax begira ezazu zuk mahaien aldera
bilo xuri eta soil batzuk bai sobera
ni hemen kokatzen naiz muaienatik behera. (bis)

**U. Aizpurua**
Denak sentitzen dira mahainean errege
ta balak botatzea niretzako xede
nahiz irri egin duten pozik eta trebe
Ametsentzat zen baina zuentzako ere. (bis)

# IRURA

2025-09-29

**Bertsolariak**
Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Alaia Martin
**Gai-emailea**
Amaia Agirre

Herriko elizan egin da San Migel festetako bertso saioa.

**A. Martin**

Gaia: Alaia oraintxe iritsi zara etxera. Lehertuta zaude. Gaur ere logelak garbitzen, txukuntzen, gelditu gabe aritu zara egun osoan. Maria Cristina hotel entzutetsuan. Etxera iritsi zarenean gaur ere telebista piztu eta gaur ere Zinemaldia. Dena glamourra eta alfonbra gorria.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Hor ibili naiz hauts malutekin
bi birika hauek puzten
maindire berri batzuk ipini
ta burukiak gorpuzten
hemen ileak zein txingurriak
distira baitu zapuzten
ahalegintzen naiz dena distiraz
eta usain goxoz uzten
gero izarrak pasatzen dira
dena baita aurreikuspen
izardun hotel hauetan ez da
zulo beltzik erakusten.

Ta hemengo hilo musikalean
Mozart batek abestean
hemengo ehun goxo zetazko
hauenpean babestean
norbaitek bere buruan ote
gaitu gero banketean?
Edo aipatzen al gaitu inork
Kursaala bete-betean?
Berez argi da ta ez naiz hasiko
ni berdintasun eskean
haiek pantaila batean daude
eta gu berriz bestean.

Feminizatu den sektorea
nahiz saiatu borrokatzen
nire egutegi gorrian ez dut
tarte librerik topatzen.
Komun batean kokaina zen
beste batean oka zen
baina guztia desagertzen da
eta horrela kokatzen
segitzen bada garbitze lana
iluntasunez opatzen
segiko dugu zikinkeria
alfonbra azpira botatzen.





*Gabiriako bertsolaritza, bertsolaritza Gabirian* lanaren aurkezpena. Gabiria. 2025-06-15. XDZ.

# LOIU (LAUROETA)

2025-09-29

**Bertsolariak**
Etxahun Lekue, Oihana Iguaran, Miren Artetxe eta Beñat Gaztelumendi
**Gai-emailea**
Iñaki Beitia *Arbildu*

Mikel Deunaren jaien baitako saioa, arratsaldez, Lauroetako San Miguel ermitan.

## E. Lekue – O. Iguaran – M. Artetxe – B. Gaztelumendi

Gaia: Etxahun, kazetari ezagun eta kritikoa zaitugu. Hor egoten zara, zelako jantzi, ze itxura… ematen duten artistek desfileetan. Pasa den astean Donostiako Zinemaldiko alfonbra gorrian pasatu ziren hiru artista dira hauek; ea zer esan behar duzun.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

**E. Lekue**
Harritu egin naz Beñat lehenengo
artista ikusi ahala
albora bitu ta pentsatu dot
"Hau ez dogu, ez normala"
artilezko jertse hutsa
ta azpitik kaputxa
baina ze uste deu hau dala?
Oindiño dabil joan dan mendeko
*borroka* balitz bezala. (bis)

**B. Gaztelumendi**
Ez det ulertzen nola ez nauzun
ikusten guapo ta lerden
ispilu aurretik erabakitzen
ze indar eta ze kemen
jertsea ta kaputxa
ez naiz borroka hutsa
horrela jantzi naiz zeren
zain nago *look* hau berriro modan
noiz ipiniko ote den. (bis)

**E. Lekue**
Mirenen txupa bakeroa be'
berez ez da hain modako
baina bera da horren handia
ba ondo geratzen jako
ikusi dauz jendeak
hor galtzerdi berdeak
baina hor ja esan dot "Alto!"
Ta espero dot hoba janztea
Laurotako bodarako[14]. (bis)

**M. Artetxe**
Zu lasai Etxahun ze bodarako
joango naiz dotoreago
bueno hori Jerry apaiz jatorrak
baimena emanda klaro!
Goia beltz, behea beltza
jazteak ze pereza
baina ez dut behar gehiago
nere estilo oso-osoa
galtzerdi hoietan dago. (bis)

**E. Lekue**
Eta Oihana zine munduan
izarra da aspaldian
danak deslunbrau eiten dauala
pentsatuko dau agian
hazi jako sabela
deko itxura itzela
non eta Zinemaldian
erropa bera erabili eban
aurreko haurdunaldian. (bis)

**O. Iguaran**
Jo, nik alfonbra zapaldu nahi nun
izar handien planean
ta itxuragatik ia Saturnon
neurria det aidanean
*eske* barruko prenda
pixka't hazi egiten da
patroi berriak lanean
dotoreago jantzi ahalko naiz
bat eranzten dedanean. (bis)

14. Arestiko bertsoaldi bati erreferentzia.

# GASTEIZ

2025-10-09

**Bertsolariak**
Julio Soto, Eli Zaldua, Aitor Bizkarra eta June Aiestaran
**Gai-emailea**
Irati Martinez

Arabako Bertsozale Elkarteak antolatu du ostegunez jaialdia, Jimmy Jazz aretoan. Aurrez hartuta 10 € eta bertan hartuta 12 € ordaindu ditu entzuleak sarrera truk.

**J. Soto - A. Bizkarra**

Gaia: Julio, liburutegi batean lan egiten duzu. Aitor, astero zoaz liburutegi horretara liburu baten bila eta pare bat hilabete daramazu liburuen izenburuaz baliatuta Juliorekin ligatzen saiatzen. Baina konturatu zara ez duela funtzionatzen.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

**A. Bizkarra**
Liburutegi eder hontara
beti gauzatxoak datoz
ta maitemindu egin ninduzun
iristean estreinakoz
ta diotsut horrela
politena zarela
hala barruz nola kanpoz
baina ez didazu kasu egiten
kontatu *zergatik panpox*? (bis)

**J. Soto**
Nere begiak zuganako ez
baitira gogo emari
ta ligatzeko liburutegi bat
ene ze ingurumari!
Zu nerekin ligatu
ez gehiegi fidatu
ta esango dizut argi
jarri *aulki bat elurretan* ta
itxaron mirariari. (bis)

**A. Bizkarra**
Bai mirari bat beharko dut nik
jeisten zaizu libidoa
eta ni berriz literatura
unibertsalera igoa
ez didazu ematen
lagun egunen baten
ezkontzeko motiboa
berotasuna nahi nuen baina
hau da hau *euli giro*a . (bis)

**J. Soto**
*Denda ostean* nahi zenituzke
sexu eta istorio
baina neretzat horrek lekarke
makina bat ondorio
barruko zimentuak
zure sentimentuak
dira dena amodio
zuganakoak nireak dira
*gari eta goroldio* . (bis)

**A. Bizkarra**
Goroldia txupatzeak du
oso altua kostua
eta garia beharrezko da
hoixe da nire apostua
zu mostradoran aurka
eta ni taupa-taupa
bakoitzak bere postua
ze pare lagun derretitua
eta *Lagun izozt*ua. (bis)

**J. Soto**
Lagun izoztu hau berotzeko
ez dakit zer behar duan
zuk Kupidori eman zenion
behin bihotza enkarguan
harremana hasteko
elkarrekin ahazteko
ta gozatzeko marruan
*eraikuntzako material*ik
ez dut sentitzen barruan. (bis)

**A. Bizkarra**
Ez duzu *bihotz handiegirik*
beraz joango naiz hegaz
jada ez dago etorkizunik
bibliotekario hauegaz
nahiz lehen nentorren maiz
gaur bilakatuko naiz
*gizon bat bere bakardadean*
*behi euskaldunekin* berbaz. (bis)

**J. Soto**
Jada ez dakit ze gehio esan
parean zauzkadalarik
joango zinela uste bainuen
lanera nindoalarik
harreman honentzako
bistan da biontzako
zaudela aukera barik
hor bada *bar* bat ito han penak
hemen ez da *gloria*rik. (bis)

# ORTZAIZE (HAIZE)

2025-10-10

**Bertsolariak**
Andoni Egaña eta Patxi Iriart
**Gai-emailea**
Peio Minhondo

Hirugarren urtez jarraian apailatu dute Irisarriko bertso eskolakoek bertso apairua, Ortzaizeko kulturaldia kari. Etxeko Borda ostatuan izan da aurtengo hitzordua, bertsozaleek mukuru bete dutena. Librean aritu dira hastapenean; gaiak emanik ondotik.

**A. Egaña – P. Iriart**

Gaia: Ortzaize zentroan bada Menta liburu denda. Herritarrengandik preziatua da, anitz zerbitzu eskaintzen baititu: liburu salmenta, hitzaldi, kafe, bierak … Andoni Mentan sartu zara eta lekuak xarmaturik irakurketan eta ametsetan hasi zara. Zoko batean da Patxi herritarra bere hamargarren biera bukatzen. Gero eta gehiago edan, gero eta leku gehiago hartzen du Patxik.

Neurria: Lau puntuko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*



**A. Egaña**
Afalaurrean nengon zorion batean
baina hemen zabiltza lokala betean
eupaka, balantzaka, neri atakean
pakean dagoena uztazu bakean. (bis)

**P. Iriart**
Hemen trago edaten daramat orena
hemen xahutuko dut nere paga dena
pixka't pusatu zaite bidean zirena
manatzera banoa hamaikagarrena. (bis)

**A. Egaña**
Tokia utziko dizut halabeharrean
etorri zara horrein aldarte txarrean
*Printze txikia* daukat eskuen ahurrean
ta errege potoloa begien aurrean. (bis)

**P. Iriart**
Zuri ere okertu al zaizu begia?
Ni ez naiz potoloa, ni ez naiz mendia
leku pixka't hartzen dut, sobera egia
hemen deitu ohi naute *Entziklopedia*. (bis)

**A. Egaña**
Edukiagatikan haundiaren sena
entziklopediana ez zen hain zuzena
eleberri bat zara Albert Camusena
eta hain xuxen duzu *La peste* izena. (bis)

**P. Iriart**
Kanpotik etorrita etorri da gose
ez dakit Mentak ere behar zaituen ase
Camus ezagutzen dut nik badakit aise
ni *La peste*[15] baldin banaiz, zu zira *L'Étranger*[16]

**A. Egaña**
Oraintxe uxatua horreinbeste duda
arrotza ote zinen zen nere jomuga
baina buruz pizkorra, gainera ardura
beste garagardo bat, hau nere kontura! (bis)

15. "La pest" ahoskatu du, frantsesez ohi den bezala.

16. "Letranxe" ahoskatu du.

# USURBIL

2025-10-17

**Bertsolariak**
Sustrai Colina, Nerea Elustondo eta Eli Pagola
**Gai-emailea**
Onintza Gartzia

Bertso-afaria antolatu du Santuenea Kultur Elkarteak, Ibai-ondo elkartean, Usurbilgo Udalak lagunduta.

**E. Pagola – S. Colina**

Gaia: Bikotea zarete. Baratza daukazue eta, zu, Eli, azken urtetan Jakoba Errekondoren jarraitzaile sutsu bihurtu zara. Haren irratsaioa entzuten duzu larunbatero; egutegi dinamikoa erosi eta zehatz mehatz jarraitzen duzu baratzeko lanak egiterakoan eta abar. Baratzarekin nahiko ez eta, orain sendabelarrekin ere emozionatuta zabiltza. Sendabelarrak topatu, bildu, lehortu, ukenduak egin… Egia esan, zure bizitza horren baitan antolatzen duzu, eta azkenaldian, beste planak uzten hasia zara… Sustrai, gaur zure etxekoekin bazkaria daukazue eta Elik esan dizu, Jakobaren egutegiaren arabera lore eguna dela eta sendabelarrak bildu behar dituela arratsaldeko 14:00etatik 16:00ak bitartean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

**S. Colina**
Erotuta zeundela
aspaldi banekin
baina puntu hontaraino
oraindik ez, *en fin.*
Geratu behar al duzu
sendabelarrekin
ez bazkaltzeagatik
txorimaloekin? (bis)

**E. Pagola**
Biodinamika da
ulert'zazu Sustrai
ez da zure sendia
nik ez detela nahi
baino egutegian
ezin det egin jai
ilbehera ez da hautatzen
ta familia bai. (bis)

**S. Colina**
Ezkiak eta mentak
bildu ditu segan
gero begiak jarri
porru ta azelgan
nola esango dizut?
Ea ulertzen geran
gure hartu-emana
dagola ilbeheran. (bis)

**E. Pagola**
Nola betetzen dezun
hitz hutsez ahoa
gure sendabelarren
kontua badoa
eta ilbeherarena
zeinen oparoa
ez al nauzu sumatzen
emankorragoa? (bis)

**S. Colina**
Itxuraz emankorra
zabiltza orain zu
haurdun zaudela esan
behar al didazu?
Halakorik ez arren
ze hartuko dut su
umeari Jakoba
jarriko diozu! (bis)

**E. Pagola**
Holako aukerarik
neregan balego!
Ez zaidazu ipini
maite buru-bero
Jakoba izena ez
baina hontaz gero
izendatuko al degu
aitabitxi edo? (bis)

**S. Colina**
Jakobarekin dabil
ekin eta jarrai
nola esango diot
nik ez dudala nahi?
Izan da aitabitxi
izendatzeko gai
aita dugun ez dakit
baina bitxia bai. (bis)

**E. Pagola**
Lasai umerik ez da
bertatik sortua
nik hala nahita ere
ez baita lortua
zurea bitxia da
horixe kontua
izena soilik dezu
lurrera lotua. (bis)

**S. Colina**
Horregatik agertu
orduko parera
esan zenuen "Hau dut
gustoko platera"
izena bakarrik dut
lotua lurrera
ta zu Jakoba bezain
azidoa zera. (bis)

**E. Pagola**
Gure etxe jira hontan
nenbilen aspaldi
azidoa gozotik
zer ote zun adi
harreman bat eman nahi
niona lurrari
lur emango al diogu
gure harremanari?

# LESAKA

2025-10-30

**Bertsolariak**
Iker Zubeldia eta Julio Soto

Herriko zenbait jubilatuk hamabostean behin egiten duten afaria da *Merkatu Afaria*, garai batean egiten zen merkatu hura gogoan. Bortzirietako Bertso Eskolak eta Lesakako Udalak bigarren urtez antolatu dute bertso-otordua. 2023an antolatu zen estreinakoz, eta *Bertso-gaztain-jatea* izeneko ekimenarekin aldizkatzen da; urte batean bata eta hurrengoan bestea apailatuz. Aurten hirurogeita hamar laguneko taldea batu da Casino ostatuan.

**I. Zubeldia – J. Soto**

Gai librean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

**I. Zubeldia**
Bizitzeko aukerak
badauzka Urbiak
han beti laguntzen du
dagon egualdiak
astean arkuma bat
jango'u Zubeldiak
azkena jandakoan
datoz komeriak! (bis)

**J. Soto**
Diruai ez zaiozu
egin hainbat kasu
behin udala utzita
Urbiara pausu
artzai izatekotan
nola zabiltzan zu
Joxe Mari' galdetu
dudaik badaukazu. (bis)

**I. Zubeldia**
Ardiak jetzi eta
sartuko da oiha'
aurretik Jainkoari
esanda sermoia
oaindik badu indarra
ta badu sasoia
pozik hartuko nuke
holako morroia. (bis)

**J. Soto**
Baldin memoria ez
badut usteldua
nik zure sortetxea
dut orain heldua
zuk Urdin-baitan hartzen
duzu sosegua
nonbait urdina baita
artzainen zerua. (bis)

**I. Zubeldia**
Utzi zerua eta
etor zaite behera
gure etxean dezu
eundoko aukera
artzaian tituloa
behar dezu atera
ta oaindik sasoian dau
izeba soltera. (bis)

**J. Soto**
Maitemina bihurtu
liteke erremin
ez zaite endredatu
holakoik ez egin
ta kontseju bezela
erruki zurekin
ez zaite maitemindu
gipuzkoar batekin. (bis)

**I. Zubeldia**
Ordun hobea hauta
napar erresuma
Gipuzkoan berdina
degu maitasuna
batzutan eztia ta
besteetan asuna
nik pista eman dizut
egin nahi dezuna! (bis)

**J. Soto**
Pareja beharra zen
lege denontzako
nahiz eta nik ez dudan
ez jotzen ontzako
izeba soltera bat
Joxe Marintzako
ez al duzu beste bat
Feliperentzako? (bis)

# USURBIL

2025-11-01

**Bertsolariak**
Aitor Etxebarriazarraga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jone Uria, Jon Maia eta Andoni Egaña
**Gai-emailea**
Karlos Aizpurua

Bertso-derbiaren edizio berri bat, oraingoan Usurbilgo Sutegi aretoan. Usurbilgo Futbol Taldea (UFT) sortu zela 50. urteurrena dela medio antolatu du Real Sociedad Fundazioak Usurbilen, Athletic Club Fundazioa, Usurbilgo Udala eta UFT-k lagunduta. Mukuru bete da Sutegi, larunbata eguerdiz.

**A. Etxebarriazarraga – M. Lujanbio**

Gaia: Aita alabak. Aitor, zure 12 urteko alaba txikitatik ari da Usurbil Futbol Taldean. Azken aldian, entrenamendu eta partiden ondotik ez du kideekin dutxatu nahi izaten, eta etxean dutxatzen da. Partida eguna da gaur, Orion ari da, eta zelaira iritsi orduko aitari esan dio etxean dutxatuko dela.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

**A. Etxebarriazarraga**
Hamabi urte, ta hiru urtez
han aritu izan zara
orain artean kexatu gabe
joanda aldagelara
ez dut epairik, soilik ardura
baina behar dizut galda
kolpera iritziz alda dezazun
zerbait pasatu al da ba?

**M. Lujanbio**
Hamabi urte pasatu dira ta
garapen bat eskaini
nere gorputzak ez du haur baten
lehengo azal, lehengo mami
eta lotsatu eiten naiz aita
nahiz ta zuk esan "Ze mani!"
galtza motzetan eroso nago
baina biluzik ez naiz ni.

**A. Etxebarriazarraga**
Beraz sentitzen zara aldaketa
horrek hartuta katean
baina horren goiz hasi beharra
al da egonez apartean?
Hausnar dezagun beste aukera bat
egon dago hainbatean
eta aldatu ote leikezu
beste aldagela batean?

**M. Lujanbio**
Ez nuke hartu nahi aparteko ta
bereziaren papela
eta etxean badaukat dutxa
intimoa ta epela
nere kideak sentitzen ditut
denak hain apain bezela
ta iruditzen zait begiradekin
parre egiten didatela.

**A. Etxebarriazarraga**
Hori edade kontua da ta
eraginda hainbat baliok
horri ere aurre ein behar zaio
eta alaba halan diot
indartsu izan behar dozula
sikatuz begi bustiok
ze hemen lotsa ta konplejuak
euki daukaguz guztiok.

**M. Lujanbio**
Zuri ere pasa al zaizu aita
halakotan nahastea?
Nik ikusten dut bat garatua
ta ileduna bestea
batak titiak hazita dauzka
bestea erdi trastea
eta ni aldiz erdi bidean
ez haurra ta ez gaztea.




San Ferminak. Lesaka. 2025-07-07. XDZ.

**A. Etxebarriazarraga**
Hemen bakoitza gaztetzen doa
tokatzen zaion neurrira
eta diozu zure hazkundea
momentu hontan urri da
baina besteak hala dabiltza
ta egoeraren harira
inoiz ez zara eroso egongo
falta zaizunai begira.

**M. Lujanbio**
Hamabi urte! Zer sentitzen dudan
esango baldin banizu…
Zer falta dudan kontatuz gero
jarriko zinake izu
gure garapen titi ta alu
gerri, ipurdi ta pisu
aita futbolaz igual bai baina
hontaz ezer ez dakizu.

**A. Etxebarriazarraga**
Gure adinean ta gorputzetan
ez gara bizi musutruk
nahiz ta mutila jaiotzen naizen
badauzkat konpleju batzuk
arrazoi duzu orain denbora
hartu behar duzula zuk
prozesu honetan zaila izan arren
zurekin ikasiko dut.

**M. Lujanbio**
Ta sentibera plantak eginez
al zatoz orain nigana?
Galdera egin dizudanean
jartzen didazu dibana
gaur arte urrun sentitu zaitut
aldiz hurbil beti ama
hobe zenuen kontu hauetaz
lehenago hitz egin izana.

**A. Etxebarriazarraga – M. Lujanbio – A. Arzallus – J. Uria – J. Maia- A. Egaña**

Gaia: Andoni, Jagoba Arrasateren paperean jarriko haut, Euskal Herriko futbol taldearen hautatzaile rolean. Euskal Herria – Palestina partida jokatuko duk datorren azaroaren 15ean, Bilbon. Azaroaren 14a da gaur, eta deialdiko jokalari asko gripeak jota omen zeudek. Zaleen artean boluntarioak eskatu eta atzeko bostak agertu dituk; horiekin osatu beharko duk taldea. Ea ba, zer ezaugarri ikusten diok bakoitzari? Bakoitza non kokatu behar duk zelaian? Eta zuek, ados al zaudete Arrasatek emandako postuarekin?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

**A. Egaña**
Hara Jon Maia erdian jarri
edo jarri ezkerrian
bere nortasun hori bizi du
modu bakar-bakarrian
horrexegatik taldetik kanpo
nago utzi beharrian
bere izena ipini nahi du
atzean eta aurrian. (bis)

**J. Maia**
Beti izan naiz gauza hauetan
protagonista xamarra
nere izena alde guztitan
horretan ez naiz bakarra
jo utzi'dazu, jo utzi'dazu
sentitzen pixka't izarra
zenbakiak'e aurrean bata
eta atzean hamarra. (bis)

**A. Egaña**
Jone Uria artista dela
nauzue ni jakituna
zelai erdiko pibote postu
hori omen du kuttuna
pase luzeetan maistra degu
jokaldi latzen jostuna
baina titular ez det jarriko
futbola maite ez duna. (bis)

**J. Uria**
Maite ez arren ez du esan nahi
hori denik nire etsai
ta konfiantzaz zelai erdian
jarri nazakezu lasai
baina ez dakit izango naizen
pase hoiek eiteko gai
nik ostikorik ez dut ematen
baina sabelekoak[17] bai. (bis)

**A. Egaña**
Ta Athletiken atezaina zen
tipo luzanga bat hara
baina hau ere hamaikakotik
kanpora behar dut laga
Etxebarria dauka batetik
eta segidan zarraga
palestinarrei hori hamabikin
jokatzea bezela da! (bis)

**A. Etxebarriazarraga**
Jokatzearren moztu ere egingo
nuke nire abizena
egia esan galduta dozu
aspaldi hontan ordena
batzun gripea trikornioa da
selekzioa besteena
joateko gogoz gauden artean
Andoni ni naiz onena. (bis)

**A. Egaña**
Ta Amets berriz ezagutzen det
bateko eta besteko
hau kapaza da sentiberatasun
gorenera iristeko
ez du barrurik palestinarrak
berriz galtzaile uzteko
eta gauza da disimuloan
geronen kontra hasteko. (bis)

**A. Arzallus**
Lagunarteko bat ez al da ba?
Nengoen atzeman gabe
*fair-play* pixka bat behar dugula
Arrasate honi galde
nik orekatu behar ditut bai
bai gure, bai euren talde
nik gure kontra egin behar dut
baina munduaren alde. (bis)

**A. Egaña**
Maialen berriz ezin det utzi
zelaian libre ta aske
ohorezko sake bat egin zun
eta zenbat buruhauste
orduz geroztik fama badauka
iya-iya Messik beste
Palestinarrak etorri baietz
bere autografo eske. (bis)

**M. Lujanbio**
Palestinarrak autografo eske
horra hor azken propina
ene Jagoba Messin kontuan
ere zu zeunden jakina.
Ni futbolean nahiko txarra naiz
beti hanketako mina…
Baina hala're igual eingo det
zuk bertsoetan adina. (bis)



17. Bistan da haurdun dela.

# AMEZKETA

2025-11-11

**Bertsolariak**
Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi

San Martin ermitaren inguruan egin da lehen bertso saioa. Ondoren, Beharzana jatetxean bazkaldu eta gero.

**A. M. Peñagarikano - B. Gorostidi**

Gai librean

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Basatxoritxo mokoluzia*

**B. Gorostidi**
Eta saiatu beharra dago
haiei ematen segida
jarraipenik ez duen auzoa
ez da jungo urrutira
ta kanpotarrak galde dezake
jende artera begira
auzo hontako, herri hontako
ume ta gaztek nun dira?

**A. M. Peñagarikano**
Zuk badakizu gora beherak
gure bizitzan denboran
lehenago esan det falta diranak
begira daudela goran
besteak berriz berekin ere
izango dute nahiko lan
gazte gehienak lanean dira
eta umeak eskolan.

**B. Gorostidi**
Gaztek lanean umek eskolan
buru makurka han ari
ospakizunak gaur badeitugu
gau beltzak eta ugari
baina San Martin garia lehen zan
beti neguko atari
gure esku da bizi ematea
lehengo ohitura zaharrari.

**A. M. Peñagarikano**
Lehengo ohitura eman hauspoa
egin dezagun ahalegin
oaindik bizirik dagon ohitura
sekula galdu ez dedin
ohitura berri asko bada gaur
Gau Beltza edo Halloween
lehengoak maite ditut nik eta
Amezketako San Martin.

**B. Gorostidi**
Eta jendea hemen biltzea
zuretzat ez da sorpresa
garai bateko lan gogorrean
ere zenbat gazi-geza!
Baino egun hau jai hartzen zuten
inorako ez zuten presa
hala ein ezean festa hori eusten
ez degu izango errexa.

**A. M. Peñagarikano**
Nere lagunak esandakoai
zuek ipini arreta
alde batera hona igotzea
ez da izaten berriketa
ohartu zaite ermita dago
dana euskaldunez beteta
jai eskau beharrik guk ez daukagu
jubilatuta gaude ta.

**B. Gorostidi**
Jubilatuta zaude ta errez
egin dezu hona bixita
ta bateon bat etorriko zan
baserriko atek itxita
zenbat lanean dabil oraindik
eta ezin iritsita
ni're korrika nator zugana
eguneko lana utzita.

**A. M. Peñagarikano**
Etorri eta gure helburua
hemen lanak burutzea
ta baseliza bete betea
aurrea eta atzea
ta nik daukadan amets gozoa
nahi dizuet aitortzea
bastoirik gabe urte askotan
San Martinera etortzea.

# OIARTZUN

2025-11-14

**Bertsolariak**
Aitor Mendiluze eta Unai Agirre
**Gai-emailea**
Juan Jose Mitxelena *Otsua*

Karrika auzoko Artaso elkartean antolatu dute bertso-afaria. Lehen eta hirugarren pusketetan librean aritu dira bertsolariak, tartekoan berriz *Otsua*ren gaien baitan.

Gai librean

**U. Agirre – A. Mendiluze**

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

**U. Agirre**
Bueno eskerrik asko
zuretzat aukeran
segi beharko degu
kotxez edo leran
honuntza etorrita
nahiz gauden primeran
galdera bat egiten
didate aukeran
hurrengo txapelketan
ertengo al zeran. (bis)

**A. Mendiluze**
Berriz ere badator
aurreko berdina
lau urtez behingorako
baitegu egina
ea joango al naizen
egiteko zina
nik daukat baiezko bat
erantzun ezina
baina joango nintzake
zu joango bazina. (bis)

**U. Agirre**
Baina badakizu zuk
ni ezin naizela
txapelketara joan
Aitor zu bezela
badakizu oso gertu
txapel hori zela
baina esaten ari da
jendearen gela
Alaiak zure aurretik
egingo duela. (bis)

**A. Mendiluze**
Jendeak izaten du
nahiko hizketa modu
baina ez gera hortara
gaur makurtuko gu
pentsa ze lagun giro
pentsa ze otordu
ba denok baiezkoa
eman badiogu
berriro Maialenek
irabaziko du. (bis)

**U. Agirre**
Maialeni ez diyot
nik estimu gutxi
txikitatik baitzigun
maila erakutsi
bizkar atzian egin
nahi diot igurtzi
baino Aitor jarraitu
zuk'e jo ta hautsi
irabazi dezala
baina zuk ez utzi! (bis)

**A. Mendiluze**
Txapelketara doa
hainbat jende mota
batzuk jolastera ta
batzuk dena jota
ni sei aldiz tabladu
haundira igota
beti nahi izan det han
nere onenak bota
txapel haundia ez zait
hainbeste inporta. (bis)

**U. Agirre**
Karrikan hobia da
holako baldintzan
eta badakizute
gu zertan gabiltzan
beti nola ez leiken
plazer dana izan
nei're proatzia tokau
zait hori bizitzan
behin iritsi nintzan ta
azkena izan nintzan. (bis)

**A. Mendiluze**
Erantzun behar dizut
ondotik, bertatik
pena ikusten dizut
ez dakit zergatik
seguruna azkena
gelditzeagatik
nik ez dela hain txarra
Maiagatik dakit
zortzigarren gelditu
hamalau milatik! (bis)

# LASARTE-ORIA (ZABALETA)

2025-11-15

**Bertsolariak**
Ane Labaka, Maddi Ane Txoperena eta Oihana Iguaran
**Gai-emailea**
Nere Erkiaga eta Amaia Agirre

*Heriotzaz, beldurretik maitasunera* izeneko bertso saioa antolatu dute hainbat elkartek: Borobilean, Heriotza Bizitzatik, Hil Argi eta Lasarte-Oriako Bertso Eskola eta Zabaleta Auzolanek.

**A. Labaka – M. A. Txoperena**

Hil Argi elkartean *Bertso-ipuin bat zuretzat* izeneko egitasmoa sortu genuen, zaintza aringarrietan dauden haurrei zuzendutakoa. Haurrek aukeratu ohi dute gaia, pertsonaia, elementuak… eta bertsolariek bertso-ipuin bat sortzen eta kantatzen dute. Hori abiatzearekin, ohartu ginen zaintza aringarri pediatrikoak ez daudela garatuta, hego Euskal Herrian behintzat. Garatuta ez daudenez, zaila da bertso-ipuin eskaintzea, baina jarraitzea erabaki dugu; web orrian dago egitasmoa, itsas-argi baten moduan eta zerbitzuak gara daitezen matraka ematen segituko dugu.

Gaia: Maddi Ane, zuk badakizu zer den lagun bat galtzea. Zure lagun min batek, nerabezaroan jakin zuen minbizia zuela, eta prozesu gogor baten ondoren, gaztaroan hil zen. Zure lagun hark, azken arnasa bere amets bat betetzen ari zela eman zuen, lagunartean, berak hainbeste amestutako bidaia bat egiten ari zela. Hil baino aste batzuk lehenago festa bat egin zuen, eta banaka-banaka agurtu zintuzten. Beti pentsatu izan duzu eredu bat izan zela Leire. Eta gaur, Maddi Ane, soka hari tiraka bertso-ipuin bat ekimenaren baitan, gaixorik dagoen ume bat bisitatzera joateko tartea hartu duzu. Ane da gaixorik dagoen gaztetxo hori, zainketa aringarrietan dena. Maddi Ane, igo dituzu ospitaleko eskailerak, hartu duzu arnasa sakon eta pasabide erdian den atea jo duzu; barruan duzu Ane, zain.



Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Zeruari begira*



Bertso Udalekuak. Uitzi. 2025-07-08. XDZ.

**M. A. Txoperena**
Urduri dut pausoa
ta urduri hitza
baina hau ez da zertan
bihurtu bortitza
agurra denez beti
lehenengo baldintza
ni Maddi Ane naiz Ane
zer moduz zabiltza? (bis)

**A. Labaka**
Jolasten naiz ohean
bide labainetan
amatxok esan gisa
hemen orainetan
lagun bikaina izango
zaitut bikainetan
bi bolatxo dauzkazu
zure ezpainetan. (bis)

**M. A. Txoperena**
Hoiek ere ez ditut
hitzetik aparte
sarri izaten dira
jolaseko ate
nik ekarri dizkizut
hainbat txokolate
asko maite duzula
erran baitidate. (bis)

**A. Labaka**
Txokolatea esanda
bi begiak puzten
zurekin ez nituen
aski aurreikuspen
ai hemen erizainek
ez didate uzten
baina gorde ezkero
ez dira ikusten. (bis)

**M. A. Txoperena**
Ta ez 'zaiezu erran
sekula barkatu
ze zuk gaur behar duzu
jolastu, dantzatu
edo eta marraztu
bertzela kantatu
ni denetako prest naiz
ta zuk aukeratu. (bis)

**A. Labaka**
Bertsolari bat dator
esan dute antza
ta nik Lujanbiorekin
neukan esperantza
baina egingo degu
gaur biko bengantza
zuk kantatu eta nik
egingo det dantza. (bis)

**M. A. Txoperena**
Ez, ez naiz Lujanbio
ni naiz hain arrunta
baina saia naiteke
pixka't kantatuta
zuk errimak hautatu
hasi eta buka
ta ikasi dezakezu
agian puntuka. (bis)

**A. Labaka**
Puntuka hasi eta
badakit hainbeste
ni azkar hasiko naiz
gehiagoren eske
gela hau txikia da
*eske*, *eske*, *eske*!
Komunean bakarrik
ezkuta gaitezke. (bis)

**M. A. Txoperena**
Komunean egonen
gara gu galako
baina utzi beharko
genuke biharko
ze ordua pasa zait
egin behar dut salto
oso gustora egon naiz
ta eskerrik asko! (bis)

**A. Labaka**
Nik ere gozatu det
zurekin bertsotan
dantza ere egin degu
jolasaren sokan
dena da aspergarri
gela txiki hontan
igual gera zaitezke
komunean lotan. (bis)

# ERREZIL

2025-11-21

**Bertsolariak**
Jexux Mari Irazu eta Sustrai Colina
**Gai-emailea**
Jon Gurrutxaga

25 urte bete dituen Erniarraitz bertsozale elkarteak antolatu du bertso-afaria, Letea jatetxean. Mukuru bete da ostatua eta Ines Osinaga aritu da saio aurreko giroa alaitzen. Librean aritu dira hastapenean, eta ondotik, gai-emaileak proposatutako gaien baitan.

**J.M. Irazu - S. Colina**

Gaia: Bi jubilatu zarete. Egunero kafea hartzen duzue eta egunero egunkaria irakurtzen duzue. Irazu, eskelen orrira iristean, eskelak begiratzen dituzu, ezagunen bat ikusten duen edo. Sustrai, eskeletara iritsi orduko pasa egiten dituzu orriak.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Igaran egun batez*



**S. Colina**
Egunkaria letuz
kafea hartuta
munduaren neurriaz
gaude ohartuta
baino nahio eskelak
di-da pasatuta
igual nere eskela
topatuko dut ta.

**J.M. Irazu**
Horixe litzateke
gauza aproposa
kontraesana eta
gainera kaosa
baina nik letzen det ba
ta eguna osa
ez nagola ikustean
hartzen dedan poza!

**S. Colina**
Letu ohi duzunean
lagunen eskela
zelebratzen zabiltza
bizirik zaudela
deduzitu behar al dut
Irazu horrela
besteren heriotzak
pozten zaituela?

**J.M. Irazu**
Bat hirurogeirekin
gazte nere aldean
besteak berroita hamar
dauzkana parean
barrua ez daukat ez
pozikan gabean
zu're poztuko zera
nere edadean.

**S. Colina**
Biak jubilatuak
ta kintoak gara
eta burua galtzen
hasi zara jada
egunero dijoa
eskela ilara
zeinek etorri behar du
gure hiletara?

**J.M. Irazu**
Norbait etorriko da
pentsatzen det hala
ta zu berriz zabiltza
umeak bezala
eskelan orrira jun
pasa berehala
uste al dezu hazitako
izango zerala?

**S. Colina**
Orria pasatzen dut
arrastoz arrasto
nahiz ta bertan ageri
den eskela asko
ez baitut pentsatu nahi
"*Qué asco, qué asco*
gaur 'e aberastu da
Diario Vasco!".

**J.M. Irazu**
Orain Diario Vascoi
danba aurpegira
jarri behar denean
zerura begira
baino gezurretikan
pasatu egira
Garan ta Berrian' e
berdin hiltzen dira.

**S. Colina**
Begia flojo duzu
ez duzu entenditzen
aspaldi ikerketa
nahian ari nintzen
Diarion eskelak
ez dira kabitzen
Berrian berriz ez da
ia inor hiltzen.

**J.M. Irazu**
Orri kopurua 're
dexente laburra
lehen Diario Vascori
nolako muturra
eskelak hoi bai letu
hoi baita ziurra
hoi du egi bakarra
bestea gezurra.

**S. Colina**
Egia ta gezurra
behar da parteka
nahiz bereizten kostatu
ohi zaigun tarteka
hiltzean abisatu
zaidazu zer gerta
zure eskela ez dut
ikusiko eta.

**J.M. Irazu**
Badaukat sasoia ta
badet osasuna
argi dauzkat begiak
ta erne zentzuna
pentsatzen det ahaztu
dezula laguna
ni naizela zurea
letu behar duna.

**S. Colina**
Hola ibiltzen gara
ni ta Jexux Mari
jubilazio batentzat
gara aldaera bi
zuk jarraitu begira
nere eskelari
nik nahio begiratu
horoskopoari.



Jaietako bertso saioa. Hondarribia. 2025-08-30. XDZ.

# IRUÑEA

2025-11-29

Nafarroa Garaiko txapeldunaren agurra

**Xabat Illarregi Marzol**

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Familiari eta lagunei
hau zuen buruan dago
bertso ikasleei besarkada bat
segi bertsotan luzaro
eta Joanes izango dira
halako egun gehiago
ta alderantziz tokatuko da
hortaz oso ziur nago
baina herria eta hizkuntza
ez bihurtzeko bi bando
esna gaitezen eta mugitu
gure mingain, gure zango
lo hartuz gero lur honek ez du
hizkuntzarik eramango
ta hizkuntzarik ez duen herri
bat ez da herri izango.





Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Iruñea.
2025-11-29. XDZ. Josu Santesteban.

# DONOSTIA

2025-12-04

**Bertsolariak**
Miren Amuriza eta Eli Pagola
**Gai-emailea**
Jon Artano

*Amazoniak. Antzinako etorkizuna* erakusketaren baitako bertso-saioa antolatu du San Telmo Museoak, bertako elizan. Erakusketak Amazoniako kulturari begirada korala eskaini dio eta bertako ahotsak aldarrikatu ditu, naturarekin bizitzeko, hazteko eta erlazionatzeko beste modu batzuk proposatzen dituztenak, artea, pentsamendua, zientzia edo aktibismoa oinarri hartuta.

**M. Amuriza – E. Pagola**

Gaia: Zuetako inor izan bada Latinoamerikan, gehien nabarmentzen diren bi espezieak *motxileroa* eta *britxeroa* dira. Sarri entzun izan diet latinoamerikarrei "*Estoy harto de ver a gringos con mochila de aquí para allá intentando sentir algo*". Miren, hi Euskal Herritik iritsitako motxileroa izango haiz, eta hi, Eli, britxeroa. Zer da britxeroa? Britxeroa ingelerazko *bridge* (zubi) hitzetik dator, Perun darabilte; britxero deitzen diete motxileroengana hurbiltzen direnei, *cazagringos* ere esaten zaie. Britxeroek zernahi eskaintzen diete motxileroei. Beraz, Miren motxileroa iritsi da Iquitos-era, ilunabarra da, bero egiten du… garagardo bat edaten ari da eta britxeroa ari zaio hurbiltzen sigi-saga.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mando baten gainean I*



**E. Pagola**
Motxilero gazte bat
hemen begiz jota
disfrutatzea beste
ezer ez det opa
maitasuna, edana
jana edo koka
eskatu lasai hemen
denetik dago ta.

**M. Amuriza**
Zu bai zoragarria
ze atsegin, ze jator!
Basora joan nahi nuke
bakarrik ta emankor
eta izarrei begira
biluzik etzan hor
nire birramonarekin
konektatzen nator.

**E. Pagola**
Konektatu nahiean
izango da broma
bueno leku honera
dator baita ona
ikusi nahi badezu
zure birramona
kontuz igual hartu du
jaguarraren forma.

**M. Amuriza**
Jo, nire begietan
zuk hori antzeman!
Eta ja bihar arte
nago barne deman
baina ja kastellanoz ez
azalpenik eman
xuxurla'idazu zure
hizkuntz indigenan.

**E. Pagola**
Nere hizkuntzan berriz
hemen has nadila
turismo plan bezela
mauka borobila
europar zuri hau da
turista abila
ama-lurra izan da
Patxamama bila.

**M. Amuriza**
Nik konektatu nahi dut
Patxamama horrekin
amonari ta amari
ta neuri berrekin
ez al duzu bilobarik
ekarri zurekin?
Argazkiak atera nahi
nituzke haurrekin.

**E. Pagola**
Bat ekarriko dizut
soberan balego
zer iruitzen? Baditu
hiru urte edo.
Hemen ondo dakizu
adin ta genero
dena dela posible
ordaindu ezkero.

**M. Amuriza**
Terrazatxo batean
hizketan egonak
akaso entzungo gintuen
nire birramonak
sentitu nahi ditut hemen
go jendeak, formak
"Tori Miren bakeroak
eman zure gonak".

# ETXEBARRE

2025-12-14

**Bertsolariak**
Maddalen Arzallus eta Nahia Etxeberri
**Gai-emailea**
Xan Alkhat

Goizean barrikadetan aritu dira bertsolariak Etxebarre, Ezpeldoi eta Lexantzü-Zünharren gaindi, bertso-aldiak eta zintzur bustitzeak aldizkatuz. Ondotik bertso-bazkaria izan da Etxebarreko gelan, hori ere Elgebarrena elkarteak apailaturik.

**M. Arzallus – N. Etxeberri**
Gaia: Unibertsitatean ikasle zabiltzate, apartamentu berean kolokak zarete. Astelehen oroz ber errituala duzu Nahia; amak prestatu gamelak edo Tupperwareak hozkailuan ematen dituzu. Maddalen, astelehenero jeloskeria sentitzen duzu.

Neurria: Lau puntuko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*



**M. Arzallus**
Ostiraletan joanik berriro etxera
astelehena heltzean nolako afera
zurekin elkartu nahi nuke nik jatera
asteko sei gamela ez al da sobera? (bis)

**N. Etxeberri**
Iganderako ere atxiki dut bata
ta amak prestatu dit jantzia, zapata
ta zuk zure xokoan hor bakarrik alta
ainitz maite naute ta ez da ene falta. (bis)

**M. Arzallus**
Batzutan sobera da halere jakizu
hainbeste maitatzea ez delako haizu
astero sei gamela handi eta pisu
ta omeleta egiten ere ez dakizu! (bis)

**N. Etxeberri**
Omeleta egiten nahi nuke jardun
baina nik errezeta ez baitut ezagun
ta ez gira deusentzat gu biak ez lagun
ondoko egunetan parteka dezagun. (bis)

**M. Arzallus**
Partekatzea ona delako tarteka
baietz esanen dizut, hala nahi nuke ta
ekarri odolkia, ekarri txuleta
ta nik eginen dizut zuri omeleta. (bis)

**N. Etxeberri**
Ta gozatuko dugu apairu bakoitza
izan dadin beroa, izan dadin hotza
ja amagana noa ta eginen dut ontsa
galdegin behar diot razio bikoitza. (bis)

# BILBO

2025-12-20

Bizkaiko txapeldunaren agurra

**Aitor Etxeberriazarraga Gabiola**

Neurria: Hamaseiko txikia
Doinua: *Egunsenti batean*

Lehenengo eskertzak
gaur Lilitegira
ta jausi nazenean
deustenei tira
baina emon daiegun
iraultzei segida
behingoz sortzeko mundu
bat danon neurrira
hori ez da lortuko
egonda begira
ta soilik ametsak ez
heltzeko utopira
ekiteko unea
hau dala argi da
biharrak marrazteko
gaurrak behar dira. (bis)





Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.
Bilbo. 2025-12-20.
XDZ. Ekaitz Zilarmendi

# Sariketak



# GETXO (ALGORTA)

2025-02-22

**Bertsolariak**
Ekhiñe Zapiain, Janire Arrizabalaga, Naia Arrizabalaga, Jon Mendiluze,
Eukene De los Aires, Sabin Abarrategi, Pello Lago eta Haira Aizpurua
**Gai-emaileak**
Irene Ezkurra, Jon Amezaga eta June Diaz

*XXIV. Abra Saria.*

Formatu berria estrainatu du ALBE Bertsolari Eskolak antolatzen duen sariak. Arratsalde berean jokatu dira bi kanporaketak eta finala, hirurak bata bestearen segidan. Elkarte zein ostatuetan aritu dira bertsolari gazteak. Trikitia lagun, giro itzela sortu da final aurreko tartean, Azebarri elkartean. Naia Arrizabalaga, Janire Arrizabalaga, Jon Mendiluze eta Haira Aizpurua pasatu dira finalera, eta saratarrak jantzi du txapela.

**N. Arrizabalaga - H. Aizpurua**

Gaia: Zahar etxean bizi zareten bi agure zarete. Azkenaldian askotan zabiltzate batera eta elkarrekin maitemintzen ari zaretela ohartu zarete. Naia, Hairak proposatu dizu zahar etxetik batera ihes egitea.

Neurria: Hamarreko txikia
Airea: *Espainian behera*



**N. Arrizabalaga**
Zahartzarora ondo
ta aspaldi helduta
nire malko guztiak
ohi dituzu xuka.
Ez nuen uste nago
ni maiteminduta
zuri ta gureari
gustoa hartuta
eta orain zurekin
nahi nuke disfruta. (bis)

**H. Aizpurua**
Baiezkoa eman duzu
harritu naiz, e be!
Zira hain kariñosa
eta hain xelebre
aio aldizkariak
bingoa, ETB…
Behingoan izan gaiten
biak errebelde
poztu eginen dira
erizainak ere! (bis)

**N. Arrizabalaga**
Nik ere eskertzen dut
Haira zure epela
ze eskasa hemengo
bazkari nibela
asko ez dut iraungo
barruan horrela
ihes egin dezagun
ezin da bestela
etxe txiki batera
ta urrun ahal dela. (bis)

**H. Aizpurua**
Goazen Islandiara
Perura hobeto
hartu dezagun mapa
biek bekoz beko
zurekin baldin bada
guztia perfekto
joan gaiten hilerrira
denbora tarteko
gure senar ohiei
keinu egiteko. (bis)

**N. Arrizabalaga**
Islandia ta Peru
aurrenik bixita
gure jantzi, koilare
onenak jantzita
ze familia dago
gutaz ahantzita
loreekin goazen
hilerrira ti-ta
hantxe egingo dugu
gure lehen zita. (bis)

**H. Aizpurua**
Lehen zita ta gure
lehen momentua
autoa piztu eta
altxatu eskua.
Zira neska bikaina
ta horren prestua
eman diezaiogun
elkarri lekua
izan dadila Naia
gure mendekua. (bis)

# HAZPARNE

2025-02-28

**Bertsolariak**
Araitz Katarain, Irantzu Idoate, Kattin Madariaga eta Lide Arregi
**Gai-emaileak**
June Elizondo

*II. Bertsuxurla*

Binakako sariketa antolatu da bigarren aldiz, oraingoan Bertsularien Lagunak-en eskutik. Aldi honetan sei bikote aritu dira bi kanporaketetan. Finala Xuriatea ostatuan jokatu dute sailkaturiko bi bikoteek. Saioaren hondarrean berdinketa izan dela ebatzi da.

**K. Madariaga – I. Idoate**

Gaia: Inauteriak direnez, karrikara mozorroturik ateratzeko hitzordua duzue gaur. Kattin, biziki ongi landuriko mozorroarekin agertu zara; Irantzu, berriz, beti bezala jantzirik.

Neurria: Lau puntuko txikia
Airea: *Gizona da zoroa*



**K. Madariaga**
Eñauterietako gutti geratzen zen
eta gaur da eguna bagoaz hobetzen
hain zen aukera ona erran dizut ezen
aitzaki bat zen pixko't tapatu zintezen. (bis)

**I. Idoate**
Nahiz ta mozorrotzea legea zen omen
batzuk hala joanak zirezte bederen
ta nahiz ta agertu ziren koloretsu hemen
ez dut ongi ulertu mozorroa zein den. (bis)

**K. Madariaga**
Bueno ba nik ere ez baina ongi gara
hola egonen zinela banun bihozkada
zutaz gaizki erranka ariko naiz hara
maskararik gabe 're banaiz *doble cara*. (bis)

**I. Idoate**
Mantendu 'zazu eta berdinari ekin
hola eginik ere *a tope* zurekin
nik ezin dut ta egin hainbeste ahalegin
biei irri eginen baitigute berdin. (bis)

**K. Madariaga**
Zurekin kontatzea beti da kaltea
baina nahiko ona da irri atakea
bueno hala diotsut Irantzu maitea
hurrengotan bakarrik moldatu zaitea. (bis)

**I. Idoate**
Ihauteri giroen betiko guduan
denaz irri egiten dakigu munduan
ta hala joanen naiz lehen segunduan
ni jantziko naiz soilik libertimenduan. (bis)

# LEITZA

2025-03-14

**Bertsolariak**
Eli Pagola, Maider Arregi, Jon Maia, Andoni Rekondo, Oihana Iguaran eta Unai Mendizabal
**Gai-emaileak**
Maddi Saralegi eta Maddi Zugarramurdi

*III. Mingañe Saltsan Bertso Sariketa*

Leitzako Atekabertso Bertso Eskolak antolatu du *Mingañe Saltsan Sariketa.* Azken saioa, finala, Leitzako Torrea tabernan izan da, afalostean. Afaria 21:30ean hasi da eta kantuari gauerdia pasata ekin diote. Atorra jantzi diote irabazle izan den Jon Maiari.

**O. Iguaran - J. Maia**

Buruz burukoa.

Ariketa: Puntuka bost minutuz

Gaia: Mundua bukatzera doa. Ikerlariek ikerketa sakonak egin dituzte eta gauza segurua da lau egun barru planeta lehertuko dela. Zer egingo duzue lau egun hauetan?



Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Ezagutu zuenak*

**O. Iguaran**
Torrea bilakatu
dezagun bunkerra
**J. Maia**
eta kanpoan behingoz
has dadila gerra
**O. Iguaran**
hau litzake pakean
tratatu ederra
**J. Maia**
hiltzeko toki ona da
Leitzako bazterra.

**J. Maia**
Eta hilko bagina
elkarren ondoan?
**O. Iguaran**
Hiltzean une on bat
neukake gogoan
**J. Maia**
total oso urruti
ezin degu joan
**O. Iguaran**
ta ez gera agertuko
eskela zoroan.

**O. Iguaran**
Behintzat hortatik libre
egongo ginake
**J. Maia**
nik lo egin nahi nuke
azken unera arte
**O. Iguaran**
ta entierrorik gabe
pentsatu ze pake!
**J. Maia**
Eta denak negarrez
gugatik jo ta ke.

**J. Maia**
Nik nahi nuke probatu
azken gazta tarta
**O. Iguaran**
hori da eskari bat
inurren aparta
**J. Maia**
ez dugu denborarik
ez ekarri karta
**O. Iguaran**
azken juzioan'e
utzi behar marka.

**O. Iguaran**
Zure omenaldia
litzake lau egun
**J. Maia**
denborarik ez da ta
ja egin dezagun!
**O. Iguaran**
Kanta berri-berri bat
sortu dezakegun
**J. Maia**
egin azkar pankarta
"Jon Maia txapeldun".

**J. Maia**
Nire bizitzan ez det
ezer irabazi.
**O. Iguaran**
Ezer hau gutxi al dan
baloratzen hasi
**J. Maia**
ba orain azken unean
nahi nuke ikasi
**O. Iguaran**
Jon Maia txapelduna
egin zuk garrasi.

**O. Iguaran**
Ta zuk oihu eginda
sinetsi ezazu
**J. Maia**
gutxinez animoa
ematen didazu
**O. Iguaran**
ba txapela kentzeko
gu pronto gauzkazu
**J. Maia**
azken jarraitzailea
izango zara zu.

**J. Maia**
Bueno, igual azkena
ta igual lehena
**O. Iguaran**
bai, baina amaiera
ekar lezakena
**J. Maia**
Oihana esan 'zazu
ja nahi dezun dena
**O. Iguaran**
mundua dela hemen
bukatuko dena.

**O. Iguaran**
Ta zu ta ni ez gera
munduko zilborra
**J. Maia**
azken sententzi hori
utz dezagun horra
**O. Iguaran**
guregan pentsatzea
ez da derrigorra
**J. Maia**
gu estaltzeko jarri
gainean atorra.

**J. Maia**
Leitzako hileta bat
tradizionala
**O. Iguaran**
uste nun festarako
prestatua zala
**J. Maia**
ta gero ilunean
pizt 'azu bengala
**O. Iguaran**
bi egun barru balu
hil balitz ojala!

**O. Iguaran**
Ze lau egun luzetxo
egin leike hola
**J. Maia**
orain edan nahi nuke
azken Coca-Cola
**O. Iguaran**
Israelen jarduna
ja ez zaizu ajola
**J. Maia**
sentitzen det bizitzan
topera nagola.

**J. Maia**
Baina ja ezin det joan
kruzero batera
**O. Iguaran**
nahi badezu errekan
bainatzera atera
**J. Maia**
ja ez det behar eta
har 'zazu kartera
**O. Iguaran**
kartera hau oraindik
Jon Maian parte da.

**O. Iguaran**
Zer daukazu ba bertan?
Lau zor, bi faktura
**J. Maia**
eta zure begien
ta literatura
**O. Iguaran**
ta NAN Espainikoa
ja ez al zan basura?
**J. Maia**
Hil eta gero libre
joan nahi det mundura.

**J. Maia**
Ja azken minutuan
egongo gera ba?
**O. Iguaran**
Munduan bukatzean
nora joan da traba
**J. Maia**
hau da unibertsoko
azkeneko gaba.
**O. Iguaran**
ta ja honen azpian
degu lurrikara

**O. Iguaran**
Zure azkeneko hitzak
kantatu itzazu
**J. Maia**
Biba Jon Maia eta
ba, noski biba zu!
**O. Iguaran**
Begira ortzi muga
ja bihurtu da su
**J. Maia**
banoa ortzi mugara
askatu nazazu!



*Norbere mundu intimo* ikuskizuna. Segura. 2025-11-21. XDZ.

# GABIRIA

2025-04-26

**Bertsolariak**
June Aiestaran, Haira Aizpurua, Eki Mateorena, Aitor Tatiegi, Libe Goenaga eta Iruri Altzerreka
**Gai-emailea**
Ane Etxezarreta

*LIII. Osinalde Saria*

Ia berrehun lagun egon dira Osinalde Sariko finala entzuten, 140 afaltiar eta ondoren inguratu direnak. Beste urte batez beraz, giro beroa Osinalde Elkartean. Aitor Tatiegik eraman du sari nagusia eta Haira Aizpuruak publikoarena eta bertso onenarena.

**A. Tatiegi - J. Aiestaran**

Gaia: Aita alabak zarete. Aitor aitarentzat langile ona izatea da garrantzitsuena. Alaba beti dantzan edo musika jotzen aritzen da.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*



**A. Tatiegi**
Lege zaharrak zituen
horrenbeste gako
denbora ezin pasa
lanetatik kanpo
ta zuk dena jolasa
zeronen kasako
hala Euskal Herririk
ez dugu altxako. (bis)

**J. Aiestaran**
Euskal Herriak asko
baititu barrenak
ta ez itzazu sortu
etxean problemak
leporatu behar al
dizkit gauza denak
arratsaldea siestan
pasatzen duenak? (bis)

**A. Tatiegi**
Baina ni seietan naiz
ohetik mugitu
ta zu orduan zinen
parrandako triku
gitarrarena ondo
igual iruditu
behintzat Laboarenak
joko bazenitu! (bis)

**J. Aiestaran**
Nik Bad Gyali luzatu
ohi diot begia
Laboarena baita
pedantekeria
lur azpian zenduke
aita aurpegia
egingo bazendu nik
eindako erdia. (bis)

**A. Tatiegi**
Hizketan ona zara
bai zabiltza ongi
baina zuretzat badut
lantxo bat edo bi
lurra aipatu duzu
ta atxurra tori!
Orduan pasako da
rebeldia hori. (bis)

**J. Aiestaran**
Ai artista beharra
bazeukan Gabirik
eta hain juxtu gogo
handia piztu dit
hogei urtera seitzen
badezu bizirik
ez dizut eskeiniko
nere abestirik. (bis)

**H. Aizpurua**

Gaia: Kuadrillako denak mendian korrika hasi dira. Inork ez dizu parrandara laguntzen.
Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Maite gaituzten soro zelaiak*

Jada badakit ezetza dela
mugikorrari heltzean
bakarrik nago herrian eta
nago umore beltzean
lagunak dabiltz Larhunen goiti
bakoitza noraezean
nik kalimotxoz itoa nago
beti barraren ertzean
bakoitza bere erara baina
denak gabiltz ihesean. (bis)

Gure gorputza zaindu nahi dugu
jeiki eta berehala
nik amore eman nuen aspaldi
nahiz eta egin eginahala
proposamen bat idatzia dut
norbaitek erran dezala
goazen mendira nahi baduzue
nik jantziko dut txandala
ta egon gaiten denak batera
garai batean bezala. (bis)



**L. Goenaga**

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

**Pobreak pobretzea**
**al dute helburu?**
Ba hori ematen du
segunduz segundu
hankaz gora ditugu
hemen zenbait mundu
baina hori aldatzen
jardun behar dugu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Gutxik asko du eta**
**askok ezer gutxi**
ta noski ezin degu
hori hola utzi
nahiz eta nahi ditugun
karterak igurtzi
borrokan ere denok
baigaitezke luzi.

# GERNIKA-LUMO

2025-05-03

**Bertsolariak**
Gorka Pagonabarraga eta Ekhi Zuluaga, Aroa Arrizubieta eta Unax Aizpurua, eta Maddi Aiestaran eta June Aiestaran
**Gai-emailea**
Beñat Astiz eta Irati Martinez

*I. Gaztetxean Bertsotan.*

Binakako lehiaketa formatua hartu du Gaztetxeak Bertsotan egitasmoaren lehen ekimenak. Lau kanporaketa (Itsasun, Mutrikun, Hernanin eta Altsasun) eta bi finalaurreko (Bilbon eta Gasteizen) jokatu ondoren, Gernikan okupatu berri den gaztetxeak hartu du azken saioa. Aroa Arrizubietak eta Unax Aizpuruak osatutako bikoteak irabazi du txapela, Maddi Aiestaran eta June Aiestaran bikotearekin buruz burukoa jokatu ondotik.

**A. Arrizubieta – U. Aizpurua – M. Aiestaran – J. Aiestaran**

Gaia: *Iparragirre abila dela* doinuan arituko zarete. Unaxek eta Maddik puntu luzeak kantatuko dituzue. Zuek, makro kontzertuak antolatu dituzten abeslariak zarete: Unax, Pello Reparaz, Zetak taldekoa; eta Maddi, Iñigo Etxezarreta ETSko abeslaria. Euskal kulturak denbora luzean izan ez dituen ekitaldi ikaragarriak izan dira, eta hori zabaldu nahi duzue. Puntu motzetan, aldiz, Aroak eta Junek, gauzak pentsatzen eta gertatzen diren bezala esango dituzte.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*



**M. Aiestaran**
*En Tol Sarmiento* talde xume bat
bere horretan horixe da
ta herriz herri oso gutxika
egin gendun behin aurrera.
**J. Aiestaran**
Aix! *Aukera berriak*
eta diruz gerriak.
**M. Aiestaran**
Plaza txikitik BECera
herri hau haundi egin nahi dugu
beti *zuekin batera*. (bis)

**U. Aizpurua**
Kontzertu eder honen prestatzen
zenbat poz ta zenbat neke!
Baina oraino gelditzen zaigu
gauza asko egiteke.
**A. Arrizubieta**
Ba abesten dut euskara
aberasteko bada
**U. Aizpurua**
ta atera zaigu merke
bertsolariek ere ez zuten
ta BEC horrenbeste bete. (bis)

**M. Aiestaran**
Bertsoarena paripea da
zer nahi dezu esatea!
Askoz hobe da herritar denen
bozeramaile izatea.
**J. Aiestaran**
Euskara bla, bla, bla, bla
kontua dirua da.
**M. Aiestaran**
luza dezagun katea
ai ene zeinen harro legokeen
gure *abuela maitea*! (bis)

**U. Aizpurua**
Kontzertu honetan ongi pasa dut
eta hartu dut plazera
dantzatu egin dut oholtza gainean
aurrera eta atzera.
**A. Arrizubieta**
Diru gehio daukat ño!
Lehen Vendettan baino.
**U. Aizpurua**
Nahiz bukatu dugun, zera
laster ukanen duzue lasai
talde honen *itzulera*. (bis)

**M. Aiestaran**
Behin xume-xume hasi ginen ta
gaur oraindik erdi pobre
gure parera etorri baita
nik ez dakit zenbat progre.
**J. Aiestaran**
Ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez
*ni gaztetxes ni letxes!*
**M. Aiestaran**
gaur gara lehengoen doble
ze musikaren doinua baino
diruaren hotsa hobe. (bis)

**U. Aizpurua**
Kontzertu hortan zenbat musika
jendea ez zen soberan
nire ilobei kontatuko dut
nik baldin badut aukeran.
**A. Arrizubieta**
Kamiseta kenduta
neskak dauzkat adurka.
**U. Aizpurua**
Hortxe osabaren eran
BECen egina nun kontzertuan
*hegan egin genun, hegan!* (bis)




Bertso-afaria. Ortzaize. 2025-10-10. XDZ.

# IRURTZUN

2025-05-17

**Bertsolariak**
Endika Legarra, Ane Zuazubiskar, Josune Aramendi, Aitor Servier, Josu Sanjurjo eta Aroa Arrizubieta
**Gai-emailea**
Zigor Gartzia *Zian*

*V. Aixita Sariketa*

Pikuxar Euskal Txokoan egin da Aixita Sariketa sei bertsolarirekin. Buruz burukora bi pasa dira: Aitor Servier eta Ane Zuazubiskar, eta azkenean Zuazubiskar izan da garailea.

**A. Zuazubiskar – J. Aramendi**

Gaia: Ane, tabernaria zara, eta Josune, astero zita desberdin batekin agertzen den bezeroa da. Gaur Ane, ligatzeko sekretua zein den galdetzera hurbildu zara Josunerengana.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Azienda bat dago*

**A. Zuazubiskar**
Hogeigarren ligea
ez lagun hurkoa
ta hala ere egin
duzu gertukoa
esplikatu zaidazu
Josune trukoa
ta ez esan dela izan
zaren modukoa.

**J. Aramendi**
Kontxo! Pikaro ere
ipinita hara!
Ba irripartxo hori
kanpora atara
jo kamarera zara
Ane hara, hara!
Plaza hobeagorik
non egongo da ba?

**J. Aramendi**
Nahiz eta hori ez den
esaldi okerra
bestelakoa dugu
ligatzean gerra
ulertzeko ez duzu
beharko masterra
ez egin negar eta
bajatu Tinderra.

**A. Zuazubiskar**
Nahiz ta astebururo
lanean ari gu
nahiz gauez guk atera
behar beste diru
kamarera lanean
nekea ari du
mozkorrak ta astunak
hurbiltzen zaizkigu.

**A. Zuazubiskar**
Aplikazio bat ta
astero txanpaina
mutil guapo bat edo
neskato apaina
mugikorrari hartu
diozu tamaina
gehiegi ez dizute
aguantatzen baina.

**J. Aramendi**
Taberna bihurtu da
zuretzat erbeste
baina ez zaitezela
kexatu hainbeste
eta sumatzen zaitut
zeozerren eske
bukatzen duzunean
geratu gaitezke.

**J. Sanjurjo – A. Servier**

Gaia: Korrikalariak zarete, lasterketa garrantzitsu batean parte hartu duzue. Zu Aitor, Josuren atzetik sartu zara helmugan; badakizu gaurkoan gau-pasaz etorrita dagoela.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Igaran egun batez*

**A. Servier**
Gaurkoan dortsalari
emango diot su
Zegama bukaturik
gustora zatoz zu
nire aurretik egin
gabe estropozu
kubatari EPOa
bota al diozu?

**J. Sanjurjo**
Bultzatu nau gorputzak
bultzatu arimak
ongi bukatzen dira
horrelako filmak
nire parrandak dira
munduko haundinak
nahi al dituzu hartu
nire bitaminak?

**A. Servier**
Oraintxe Isostar bat
gero gerokoa
bitaminak hartzea
omen da jokoa
oraintxe sentitzen naiz
hau  da oztopoa
ba gehiegitxo zaindu
egin den tontoa.

**J. Sanjurjo**
Ta nik inbidioso bat
daukat parez pare
ni zerorren aurretik
ta holaxe gaude
gau-pasaz irteteko
ze abilidade!
Horrela irteten naiz
presiorik gabe.

**A. Servier**
Ta presioa zer den
nik ederki dakit
zure aurretik ezin
bukatu hargatik
ni bezela zainduko
bazina gogotik
bukatuko zenuke
Kilianen aurretik.

**J. Sanjurjo**
Ez zaitezela hona
etorri deus eske
gau-pasaz etorri naiz
nahiz zenuen uste
hurrengoan ez zaitez
kexatu hainbeste
nerekin parrandara
etorri zaitezke.

# OROZKO

2025-05-17

**Bertsolariak**
Julen Zelaieta, Asier Otamendi, Rikardo Gonzalez de Durana, Mixel Etxekopar, Juanjo Respaldiza eta Karlos Aizpurua

**Gai-emailea**
Aitor Arrutia

*Bertsolari Beteranoen I. Sariketea*

Supaztarrean Kultura Alkarteak antolatu du estreinakoz *Bertsolari Beteranoen I. Sariketea*, Orozkoko Udalaren babesarekin. Euskal Herri osoko bertsolari beteranoek hartu dute parte goizean jokatutako hiru kanporaketatan. Finala bazkalondoan izan da, Iza ostatuan. Asier Otamendik jantzi du txapela.

**As. Otamendi**

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*



**Lanean joaten da**
**bizitza erdia.**
Hortxe galdu beharra
a ze miseria!
Baina esan behar dizut
benetan egia
erretiroan daukat
jarrita begia.

**Osasuntsua al da**
**lana egitea?**
Ondo iruitzen al zaizu
hori esatea?
Nagusiak jartzen du
beti 're katea
mingarria dena da
lanera joatea!

**As. Otamendi**

Hitza emanda bertso bat: Nortasuna

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Oso polita zara izatez*

Gure mundua globalizatu
zitzaigunetik zeharo
ezin bereizi gabiltz hemen gu
berdin hemengo ta hango
sare sozial ta telebista
sartu ziguten oparo
dena etxeko bihurtu dugu
ta ezer ez da arraro
eta bertako berezitasun
guztiak ia akabo
euskaldunena manten dezagun
baina gure esku dago. (bis)

# LAUKIZ

2025-06-21

**Bertsolariak**
Maddi Agirre, Oihana Arana, Izaro Bilbao, Xabat Illarregi, Maite Sarasola eta Josu Txoperena
**Gai-emailea**
Peru Irastorza

*I. Lauaxeta Sariketa*

Lauaxetaren sendikoekin batera, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde Ibone Bengoetxea, Hizkuntza Politikako Sailburuordea, Aitor Aldasoro, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria, herriko alkatea, eta beste hainbat agintari bertan direla burutu da lehenengo aldiz bertsolari gazteentzako Lauaxeta Saria. Xabat Illarregik eta Oihana Aranak jokatu dute buruz burukoa, eta lehenak, leitzarrak, eraman du txapela.

**X. Illarregi – Ma. Agirre**

Gaia: Maider herriko apaizak, Xabat margolaria kontratatu du eliza apaintzeko. Bukatu duela esan, elizan sartu eta hormak graffitiz eta pintadaz margotuta topatu ditu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Durangotik gorako*



**X. Illarregi**
Horma erdi okerra
ta erdi planoa
apaiza andrezkoa
beneukan susmoa
gauzak aldatzeko ja
bazela asmoa
ta horregatik egin dut
zerbait modernoa. (bis)

**Ma. Agirre**
Orain ere ez dago
ba oso beteta
inork ez du egiten
hona lasterketa
eta nik pentsatu dut
a ze hausnarketa!
Bigarrenez zenduko
zela Lauaxeta. (bis)

**Ma. Agirre**
Laukizen non dena den
larre, baserria
kanpotik etorri da
artista zerria
eta asmoa nizun
jada igerria
eliza bihurtu da
infernu berria. (bis)

**X. Illarregi**
Eta zu ere erori
egin behar zara edo
egin dudan guztia
ez zenun espero
dena azaldu dizut
ikusi ta gero
a! Itxoin, zerbait ahaztu zait
hiru mila euro! (bis)

**X. Illarregi**
Hara nere artea
margozko inprenta
eta zuk soka berriz
tenka eta tenka
inor ez da ohartuko
naiz jendea tenta
azkenaldian inor
ez da etortzen da. (bis)

**Ma. Agirre**
Ba lortu beharko dituzu
Xabat zeure kasan
nik nahi dut hemendik joan
eta sofan etzan
gauza bat argi dago
hemen edo plazan
elizak ezin duela
modernismoa jasan. (bis)

Lehen puntua emanda

**O. Arana**

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

**Birzkilatzea ez da**
**horren zaila baina**
denok ez dugu egiten
behar dugun aina
nik ja hartua diot
gustua, tamaina
ta atez atekoa
dugu alajaina!

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Planeta zaindu behar**
**bakarra delako**
gizakia ez da izango
planetarik bako
hortarako behar dira
horrenbeste gako
ez hainbeste Guggenheim
ta hainbeste asfalto.

Lehen puntua emanda

**X. Illarregi**

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Mundua hankaz gora**
**eta gu bertsotan.**
Hemen ardurak ezin
ba hartu besotan
nahiz ta konponbideak
dauzkagun ahotan
norbera konpontzea
nahiko da askotan.

**Batzuetan hitza da**
**armarik onena**
baina atera ahala
eteten dutena
ta horren ardura da
sarri goikoena
beti berdina bada
hitz eiten duena.



Lehen puntua emanda

**M. Sarasola**

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

**Zer da Euskal Herria**
**euskararik gabe?**
Bai, hori aipatzea
ez da nobedade
ez da ezer inorentzat
heldu zein nerabe
egoera kaxkarra
dugu hala ere.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Ikasle gehiegi ta**
**hiztun gutxiago**
zer esango didazu?
Euskaltegian nago.
Egoera ikusten
dut argi ta klaro
eta aurretik bide
potentea dago.

# MARKINA-XEMEIN (AMALLOA)

2025-06-21

**Bertsolariak**
Jon Maia, Maialen Lujanbio, Aissa Intxausti eta Nerea Ibarzabal
**Gai-emailea**
Joseba Sololuze

*II. Zortziko Txiki Txapelketa*

*II. Zortziko Txiki Txapelketa* jokatu da Amallon (Markina-Xemein) larunbatez, auzoko jaien baitan. Bertso afari moduan antolatzen da lehiaketa hau, eta bigarrenez jarraian Nerea Ibarzabalek irabazi du.

**J. Maia – M. Lujanbio - A. Intxausti – N. Ibarzabal**

Gaia: Aissa, ETBn, Linbo programan esan zenuen hil ondoren zure hileta epikoa izatea nahi zenuela. Hil zara, kaxa barruan zaude eta beste hirurak etorri dira zure hiletara.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Errota zahar maitea*



**A. Intxausti**
Ua! Kaja honetatik
ze eskaparate!
Plazan bertsolariak
lagun ta alkate
baina begian malko bat
denek ez daukate
itxuraz ez ninduten
horrenbeste maite.

**N. Ibarzabal**
Ai Aissa, gure Aissa
trankil egon zaitez
herri osoa dabil
zu bihotzez maitez
Lekittar lepa luze
malgu bat izatez
zeu jarriko zaitugu
antzararen partez.

**A. Intxausti**
Besoa ipini nahi
didazu zainean
ta burua kentzeko
ibili lanean
maite banauzu Nere
zure afanean
txapela jarri ʻzazu
kaxaren gainean.

**M. Lujanbio**
Aissa hil zela eman
ziguten abixu
Ameriketatik ni
zuzen natorkizu
han bataiatu zinen
eta badakizu
Donald Trump berak ere
tweet bat jarri dizu.

**A. Intxausti**
Beti doaz bertsoa
eta politika
hemen gertatu dena
ondo ikusita
oholtza honetan jarri
dute biek zita
Lujanbio Trumpekin
hori bai epika!

**J. Maia**
Berria-ko portadak
goizean eztanda
Lekittoko Nemoa
bertsoaren ganba
epikoki hil nahi zun
tiburoiak janda
baina gilda batekin
ittota juan da.

**A. Intxausti**
Bizi kutre bizi zen
ta hil ere merke
baina aizu halan be
plaza erdi bete
Jon Maiak ganba deitu
dit oholtzan fuerte
hau ta gero ja lasai
berpiztu naiteke.

**N. Ibarzabal**

Gaia: Bizenta Mogel idazlearen irakurketa baten ondoren, zuk zenioen artikulu batean emakume batek euskaraz argitaratutako lehen liburua izan zela Bizenta Mogelena, eta seguruenik barkamena eskatzen hasten zen lehena. Zuk zertan eskatu izan duzu barkamena hasi aurretik?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Emazurtz jaio hintzen*

Emakume, idazle
bertsolari mirez
beste asko bezala
hontan adibidez
oholtzara igo arren
egin nahia ihes
lehen barka eskea
gorputzaren bidez.

Nahiz parean eduki
mikro ta altaboza
ta barruan zeozer
esateko poza
zer ote da epaia?
Zer ote da lotsa?
Hogei urte tardau dot
altxatzen ahotsa.

Jendean eta gure
tartea laburtzen
ikasi dut begiak
altxata agurtzen
ez joatea jeisten
edota makurtzen
huts egiteak ez nau
hainbeste beldurtzen.

Baina gure joko hau
ez danez errenta
genealogi luze bat
gabiltza errenka
barkamen eske batez
idazle izan zen ta
ondo ulertzen zaitut
neuk ere Bizenta.

Baina azken batean
egitean datza
sormena izan dadin
aldiro ardatza
zuzena edo okerra
baino hor lorratza
kreazioan parte
dalako akatsa.

Eskerrak atrebitu
zirela lehenik
horrenbeste herritan
oholtzara irtenik
ta ez dezala izan
bideak etenik
existitzeko ez da
eskatzen baimenik.

Beraz bide hontatik
ez dut nahi aldegin
berdin da geure erortze
ta geure ahalegin
historiako Bizenta
guzti horien berdin
barkamena eskatu
baina lan be egin.

# BERRIATUA

2025-06-26

**Bertsolariak**
Egiar Otegi, Jokin Onaindia, Unax Aizpurua, Kattin Madariaga,
Enara Gallastegi, Ekhi Zuluaga, Jon Abasolo eta Kelmene Abaitua.
**Gai-emailea**
Julen Sololuze

*XXVIII. Berritxu Saria*

Berriatuako Udalak antolatu du hogeita zortzigarren aldiz Berritxu Saria. Euskal Herri osoko 8 gazte aritu dira kantuan berrogeita hamar zaleren aurrean. Kattin Madariagak irabazi du lehen saria eta Unax Aizpurua gelditu da bigarren.

**K. Madariaga**

Gaia: Berriatuara iritsi berria den etorkina zara. Zure lehen eguna da herrian; paseoan diharduzu herria ezagutuz.

Neurria: Hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *XILABAra jina nauzu*



Etorri naiz nerbioak
barren guztia hartuta
batzutan konplikatzen da
izan beharra okupa
ez dakit nork duen erru
eta nork dun hontan kulpa
baina hemen sentitzen naiz
galduta ta izututa
aurretik daukadan dena
aurretik dudan burruka
nire azal beltza baino
beltzago ikusten dut ta.

Heldu gara familia
ta ni guztiok ilaran
eta ez naiz konturatu
sartu naizela ikaran
ez dakit Berritxun edo
herri denetan hola dan
baina ni lekuz kanpo ta
urduri azken boladan
baina ez naiz zentratuko
gaur nire hanken dardaran
ea datorkidanean
behintzat zortea daukadan.

# ZARAUTZ

2025-09-05

**Bertsolariak**
Iker Ormazabal *Tturko*, Elixabet Etxandi, Irati Alcantarilla, Aimar Sorazu, Janire Arrizabalaga eta Maddi Agirre
**Gai-emailea**
Amaia Urbieta

*XLIX. Lizardi Saria*

Modelo aretoak hartu du bertsolari gazteen *49. Lizardi Saria*. Motxian-Etxebeltz Bertsoguneak antolatzen duen sariketa Janire Arrizabalagak irabazi du aurten eta Maddi Agirre izan da bigarrena. Gernika-Lumoarrak, Janirek, eraman du bertso onenaren saria ere.

**Ma. Agirre- J. Arrizabalaga**

Gaia: Gurasoak zarete, zuen 9 urteko umeari kurtsoa errepikatzea komeni zaiola esan dizue irakasleak. Azken hitza ordea zuena dela dio.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Egun lanerat abiatu zait*



**Ma. Agirre**
Gure semeak auzoan ditu
gogoa eta ganora
errepikatzen ez badu aurten
okertuko da gerora
ta ezin dugu halabeharrez
bidali kurtsotan gora
irakasleak hala uste badu
arazoa nun dago ba?

**J. Arrizabalaga**
Hala galdetu didazu orain
baina non dago problema?
Irakasleak hala badio
hori izan da onena
baina ikusi bere ikasgela
eta hezkuntza
sistema semearena al da errua
edo irakasleena?

**Ma. Agirre**
Zaila izaten da sarri Janire
hor muga bat ezartzea
baina semeak behar du jakin
disziplina asko hartzea
ta azkenean nahiz ta zaila den
egitea balantzea
errezena da irakasleei
beti errua botatzea.

**J. Arrizabalaga**
Noski klasean pasa ezkero
egunero zazpi ordu
umeak soilik begiratzen du
bere lur ta bere zoru
berez ditugu irakasteko
mila metodo ta modu
urte bat edo bi eginda ere
berdina ikasiko du.

**Ma. Agirre**
Urte bat edo bi berdin dela
hortxe bota duzu ta ai!
Egia esan nik zehaztapen
horretan ez dut sartu nahi
baina semeak behar du biok
egon gaitezela lasai
laguntza asko beharko baitu
eta gurea ere bai.

**J. Arrizabalaga**
Horretarako egin beharko
dizkiot mila eskema
eztabaida da harreman hontan
aspaldi hontan ez dena
ta horregatik ez naiz izango
antisistema zekena
bale ba, baietz esango dugu
hori baita errezena.

# ASTEASU

2025-10-17

**Bertsolariak**
Agin Laburu, Etxahun Lekue, Maddalen Arzallus, Ekhiñe Zapiain
**Gai-emailea**
Igotz Alkorta

*IV. Pello Errota Sariketa.*

Harituz Bertsozale Elkarguneak antolatzen du sariketa, bi urtez behin eta Maddalen Arzallusek irabazi du laugarren edizioa, Etxahun Lekuerekin buruz burukoa jokatu ondoren. Ekhiñe Zapiainek jaso du bertso onenaren Mikaela Elizegi saria.

### E. Lekue – M. Arzallus

Gaia: Amona biloba zarete; Etxahun amona eta Maddalen biloba. Azkenaldian, harrituta zaude biloba zenbat aldiz datorkizun baserrira bisitan eta zein goxo hitz egiten dizun. Gaur ea lotan geratu daitekeen galdetu dizu.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*



**E. Lekue**
Eginez gero gure arteko
azken urteen balantzea
distantzi apur bat murriztu dala
esanda ez da geratzea
Maddalentxu biloba
ez zara lehenengo loba
baina hauxe ta trantzea
gura al dozu umetako eran
ipuin bat be' kontatzea? (bis)

**M. Arzallus**
Nahiz eta lehen gure harremana
zen distantea ta hotza
orain ipuinak entzun nahi ditut
hain goxo duzu ahotsa
ia asteroko zitan
etortzen naiz bixitan
ta xamurtzen zait bihotza
zuk ez al duzu gertu ikusten
bada zure heriotza? (bis)

**E. Lekue**
Ezaguna da gaur ehun urtetik
gorako andreen kasua
ni osasunez ederto nabil
hori da nire luxua
beraz zure bixita
hau sumatzen hasita
laztana eta mosua
zu astean behin etorten zara
bitan zure lehengusua. (bis)

**M. Arzallus**
Lehen genuen gure artean
sekulako distantzia
orain maite dut zure ipuina
zure zetazko jantzia
badaukazu dirua
ta gauza segurua
ta ahaztuz elegantzia
ez diozu ba hari utziko
ai amona herentzia? (bis)

**E. Lekue**
Horren galdera zuzena bota
deustazu hain modu trebez
gaurko gazteak lotsabakoak
atera bai jakuz berez
badodala dirua
hori dozu helburua
baina Maddalen mesedez!
Lehengusuari ez deutzet emongo
baina igual zeuri ere ez. (bis)

**M. Arzallus**
Oraintxe bertan sartua nauzu
gogoeta ilunean
zuk maitasuna ematen duzu
bakarrik nahi duzunean
nago zu hiltzeko zai
baina egon zaitez lasai
ze nire maitasunean
lore sorta bat utziko dizut
joaten zaren egunean. (bis)

# AMENDÜZE-UNASO

2025-10-25

**Bertsolariak**
Battitt Crouspeyre, Guillaume Elizondo *Gus*, Elixabet Etxandi, Goizane Etxeberri, Nahia Etxeberri, Peio Minhondo, Jean Mari Oillarburu, Pettan Prebende, Bittor Thikoipe eta Oier Urreizti
**Gai-emaileak**
Xan Alkhat eta Ramuntxo Christy

*II. Kopla Topelketa*

Amenduzeko Eihera mukuru betea dela jokatu da II. Kopla Topelketa. Zaleak juje lanean aritu dira eta sei bertsolari hautatu dituzte bigarren itzulirako: Battitt Crouspeyre, Elixabet Etxandi, Nahia Etxeberri, Peio Minhondo, Pettan Prebende eta Bittor Thikoipe. Irabazlea izendatzeko bozka eman dute berriz saioko entzuleek eta Elixabet Etxandi izan da irabazlea. Txomin Elosegi aritu da soinu txikian koblakariak laguntzen.

**E. Etxandi –P. Minhondo**

Gaia: Bi urepeldar zahar zarete. Harrituta zarete hurbiltzen ari den jendearekin.

Neurria: Bi puntuko handia
Doinua: *Aita semeak tabernan daude I*



**P. Minhondo**
Holako jendea izaitea, nik hemen ez nuen uste
gainera Xalbador nor den ere, horiek hor ez dakite!

**E. Etxandi**
Alex Sardui ta tabernan daude, Peio ta Elix jokoan
nola hainbeste jende bada gaur, Urepeleko zokoan?

**P. Minhondo**
Dakigu huna jina zaukula, horiek betetzen kexak
untsa futitzen dira izaitea, hor herri guzia frantsesak.

**E. Etxandi**
Milaka jende dira gaurkoan, eta giro bat airosa
agian berriz ospatzen dute, Xalbadorren heriotza.

**P. Minhondo**
Holako jendea ez dut ikusten, nik usu a ze kaltea!
Jende guzieikin segur ukain dut, neretzat hor emaztea.

**E. Etxandi**
Hegoaldekoek ez dute falta, furgonetetan indarrik
Xalbadorrenea bisitatzeko, etortzen dira bakarrik.

**P. Minhondo**
Horiekin mintzatzeko ari niz, hortxe ni pixka bat nekez
Elix nola erraiten da biera? Lagundu hor espainolez.

**E. Etxandi**
Urepelen gaur gira gu Peio, eta dena berdin dago
biera edo kaña erten ahal duzu, edo sinple: garagardo.

**P. Minhondo**
Hiztegi hori egiten zait bai, neri pixka bat arraro
hala ere hor dragatzeko nik, beharko dut gehiago.

**E. Etxandi**
Sarduiek ere joko horietan, benetan badu ahala
bera matxista iduritzen zaut, pixka't zu ta ni bezala.

# ZALDIBIA

2025-11-22

**Bertsolariak**
Eneritz Artetxe, Julio Soto, Maider Arregi eta Aner Peritz
**Gai-emailea**
Iker Iriarte

*VII. Zapi Janztea.*

Zapiak bat elkarteak antolatuta, Udazkeneko zapi janztearen zortzigarren edizioa izan da aurtengoa. Bazkariaren ondoren aritu dira bertsolariak Zubiburu elkartean eta bukatzean, Julio Sotok, iazko zapidunak, Maider Arregiri jantzi dio zapia.

**J. Soto - E. Artetxe**

Gaia: Jubilatuak zarete Eneritz eta Julio. Astelehenero elkartzen zarete, izan Ordizia, Lazkao edo Beasain, tokatzen den lekuan, pentsio duinak eskatzeko. Eneritz, zuri iruditzen zaizu pentsionisten aldeko kartel eta aldarrikapenez gain, ez dagoela sobera bestelako aldarrikapenak ere bertan adieraztea, izan bandera, kartel edo oihu forman. Juliori iruditzen zaio pentsionisten elkarretaratzeetan motibo horren alde bakarrik azaldu behar zenuketela.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi II*



**J. Soto**
Ba bai, goaz amontzen
bezela aitontzen
eta egoerarik
ez baita konpontzen
guda gehiotan nola
hasi gu sakontzen?
“Pentsio duinak bai!”
egin oihu ozen
jakin ’zatela argi
zertara gatozen.

**E. Artetxe**
Deitu pentsioduna
edo deitu zaharra
astelehenez ez dugu
batere plan txarra
bandera feminista
zein palestinarra
erakusteko dugu
balia beharra
begiratzen diguten
momentu bakarra.

**J. Soto**
“Gora Gaza” ta “Moztu
juduei hesteak”
“Gora Sahara” eta
“Fuera erbesteak”
Vito Quiles faszistak
pentsa ze eskeak!
Aukera dira mila
pankarten eusteak
lehenbizi borroka hau
ta gero besteak.

**E. Artetxe**
Hasi zara egiten
egoskorrarena
zu hola ikusteak
ematen dit pena
sarri gaztez betetzen
zaigu plaza dena
ozen hartuta gure
aldarrikapena
nahiz momentu honetan
ez den beraiena.

**J. Soto**
Gaurko mundua ez da
mundu bat arrunta
jende aina problema
ta problema punta
sistemak gu nahi gaitu
denetan nahastuta
denekin oroituta
ta denak ahaztuta
gehio lortzen da baten
fokalizatuta.

**E. Artetxe**
Nahiz eta sarri egin
hamaika ahalegin
berdintsu honekin ta
berdintsu harekin
beste zerbait hartzea
ez dezu atsegin
sistemak hautatu du
ta zuk ere berdin
zaharrok ezin dugula
protestarik egin.

**J. Soto**
Garela gorputz nulu
garela biguinak
ba ez zaharrok dauzkagu
guk berdin burmuinak
ta parean dauzkagu
ezkerrak, eskuinak
inpernuraino heldu
bitez gure uhinak
ta lortuko ditugu
pensio duinak.

**E. Artetxe**
Nahiz arreta jarri nahi
pentsio honetan
faszistak datozkigu
nahi gabe ere bueltan
pakerik ez daukate
Gazako kaleetan
nahiz oihurik ez egin
zuk pankartan bertan
nik hala ekarriko det
nere kamisetan.

**J. Soto**
LIbertadea duzu
nikian jartzeko
nik dudan gisan zernahi
gai oihukatzeko
nahiz pentsioa dugun
zifra eskaseko
goazen tabernara
betiko antzeko
oraindik iristen da
kafe bat hartzeko.

**E. Artetxe**
Beraz tabernarako
da zure ordena
ahaztuz egitarauko
ekintzen ordena
hola ezin da konpon
ordea problema
gaur egin duzun gisan
joatearena
da beti egin leiken
gauzik errazena.




Bertso derbia. Usurbil. 2025-11-01. XDZ. Eduardo Agreda.

**M. Arregi - A. Peritz**

Gaia: Aner eta Maider, askotan entzuten ditugun bi hitz dira berdintasuna eta parekidetasuna. Baina ez dira gauza bera, are gehiago, berdintasuna versus parekidetasuna proposatu nahi dizuet. Azaltzerik edukiko al zenigukete ze diferentzia dagoen berdintasunaren eta parekidetasunaren artean?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Behin batean Loiolan III*

**M. Arregi**
Nola egin ditugun
hainbat asanblada
desberdintasun hori
badakigu jada
eta errax azaldu
nahi dizuet hara!
Parean gaude baina
desberdinak gara. (bis)

**A. Peritz**
Ta hala izateak
ez du ezer txarrik
baldin eta espero
badugu biharrik
